TOKIKOM Berezia
# txintxarri

**1110.** zenbakia 2013-06-27 Lasarte-Oria txintxarri.info




ETXEZARRETA
HARATEGIA



SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!
OSO ONDO PASA!

#SPJ2013

1963tik ... 2013ra
50 urte elkarrekin
Mila esker



Hipodromo etorbidea 2 • Tel.: 943 361379
LASARTE-ORIA


HARATEGIA BALERDI URDAITEGIA
Balerdi Harategiak
LASARTE
Kale Nagusia, 36-38 • Tel. 943 33 42 82
Geltoki kalea, 19 • Tel. 943 37 65 85
Kale Nagusia, 50 • Tel. 943 36 36 11
San Pedro jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!
Oso ondo pasa!
HERNANI
Izpizua kalea • Tel. 943 33 42 82
URNIETA
Idiazabal kalea, 17 • Tel. 943 00 81 69
DONOSTIA
Bermingham, bajo n° 31•Tel. 943 28 23 23


USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA
IEFPS USURBIL GLHBI
MATRIKULA
Oso ondo pasa festetan
Goi-mailako
Erdi-mailako
HEZIKETA
ZIKLOAK
UZTAILaren
8tik 12ra
Energia eta ura
Mantenimentua
Mekanika
Elektrizitatea
Administraritza
e-mail: eskola@lhusurbil.com
Etarte bidea 9 (Zubieta) 20170 USURBIL - Tel.: 943 364 600

# Hemen dira San Pedroak!

Hemen ditugu San Pedro jaiak eta ohiko erritualari ekiteko garaia iritsi zaigu lasarteoriatarroi. Armairuan, kamiseta guztien atzean geratu den blusa ateratzeko ordua da. Azken asteetako eguraldi grisak lagunduta ia konturatu gabe iritsi zaizkigu San Pedro jaiak. Izan ere, udan gaudela ere nabaritzeko aukerarik ere ia ez da izan.



Nahigabe, festetako protagonistetako bat eguraldia izango da. Hilabete luzeak izan dira aterkipean eta beroa pasatzeko gogoa daukagu, eta hala nahi genuke bereziki, Oriaren jaitsiera egiteko, Busti Blai jolasean etxeko gazteenek primeran pasatzeko eta orokorrean, Okendo plazan, festen bihotzean, festetako ekitaldi guztiez gozatzeko.

Aurtengoan iaz bezala egitarau oparoa dugu ekainaren 27tik uztailaren 1era bitartean. Sorgin Jaikoek txosna Okendo plazan izango dute iaz bezala eta plazako agerlekua elkarbanatuko dute udalak eta Ttakunek antolatutako ekintzekin. Ohi bezala, Sorgin Jaiek irekiko dituzte festak ekainaren 27ko txupinazo alternatiboarekin, arratsaldeko 19:00etan egingo dute eta izango dira ustekabeak. Udalak ordea, ekainaren 28an bi txupinazo egingo ditu iazko bideari jarraiki eta 2013ko hiru omenduek botako dituzte txupinak San Pedro bezperan.

Lehenengoa, haurren txupinazoa izango da eguerdiko 12:00etan udaletxetik. Honetara herriko haur eta gazteak gonbidatuta daude buruhandi, erraldoi eta txarangaren doinu alaiekin batera festari hasiera eman diezaioten. Arratsaldeko 19:00etan berriz, Solaskideak, Beltzak Errugbi taldeak eta Alboka Abesbatzako kideek izango dute txupina Udaletxe berriko balkoitik Lasarte-Oriako zerura botatzeko ardura.



Hortik aurrera, leher egingo du festak. Herriko kaleak girotuko dituzte txaranga eta buruhandiek, Sorgin guneak, danborradak, zikiro-afariak, barrakek... Baina batez ere herritarrok emango diegu kolorea, festaren arima izan behar dugulako, bestela zer lirateke ba herriko festak?

Lauzpabost egunez etxetik kanpo egongo gara, kaleak hartuko ditugu eta hamaika ekintzetan, festa ofizial zein alternatiboen baitan antolatutakoetan, parte hartuko dugu. Urte osoan jo eta ke lanean aritu ostean, badugu herritarrok ondo merezitako festez gozatzeko eskubidea.

Gaur motorrak berotzen hasteko aukera izango dugu eta bihar lehertuko dira San Pedroak. Hasten den guztiak amaiera izaten duenez, bukatu egingo dira 2013ko San Pedro Jaiak, noski, baina hasi orduko amaieran pentsatzen aritu beharrean, goza dezagun bost egun hauetan egingo dugun bideaz! Gora San Pedro Jaiak!

hurrengo zenbakia txintxarri Uztailaren 3an
2013ko San Pedro festetako argazkiak

**Diruz laguntzen duten erakundeak**

**Babeslea**
LASARTE-ORIA UDALA

**Laguntzailea**
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

**Argitaratzailea:**
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
**Legezko gordailua:**
SS513/93
ISSN: 1134-0053
**Inprimategia**
Zeroa Multimedia, S.A.
**Aleak zenbakiko:** 7.800

txintxarri
**Erredakzioa:**
Nerea Eizagirre, Jon Altuna I., Maider Azurmendi, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info
**Publizitatea eta administrazioa:**
Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com
**Laguntzaileak:**
Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Jone M. Hernandez, Oihana Salazar, Pako Aizpitarte, Edu Galardi
**Informatikoa:**
Xabier Amadoz

Alboka Abesbatza Omenduak

# "Zaila da hainbeste urte egotea, baina musikarekin errazagoa da"

## Alboka Abesbatzak 1993 urtean Alboka Txiki abesbatza sortu zuen harrobia lantzeko

***Alboka Abesbatzak 25 urte egin ditu aurten. Hainbat ekintza prestatu ditu horretarako hiru hilabete honetan, esate baterako, lehengo larunbatean San Pedro elizara hurbildu ziren herritarren belarriak goxatu zituen. Udalaren esanetan kantatzeaz haratago, "lan didaktikoa" burutuz, gaztetxoenei "musikarekiko maitasuna eta miresmena" transmitu izana eskertu nahi dio. Horregatik, Alboka Abesbatzeko Iker Olano lehendakaria eta Oihana Diaz eta Jon Sarasola abeslariekin bildu gara lan horri buruz gehiago jakiteko.***

Nerea EIZAGIRRE

**Zer suposatzen du Alboka Abesbatzarentzat omenduetako bat izatea?**

**Iker:** Ohore bat da guretzat Lasarte-Oriako Udalak gugan pentsatzea.

**Eta aurten Alboka Abesbatzaren 25. urteurrena izan duzue...**

**I.:** Bai. Ospakizun urtea dugu. Gainera badaude, aurten abesbatzarekin batera 25 urte egiten dituzten pertsonak ere.

Ezin gara haietaz ahaztu. Haiei esker posible izan da Alboka mantentzea eta den bezala izatea.

Hori ere kontuan izan behar da, Albokak 25 urte egiten ditu eta abesbatzako zazpi bat pertsonek ere.

**Nolako izan da urteurren urte hau?**

**Oihana:** Lan handiko urtea izan da.

**I.:** Urte luzea eta gogorra izan da. Hainbat buruhauste izan ditugu eta moldatu gara. Eta oraindik bukatzeko dago. Kide bezala plazerra da horrelako talde bateko kide izan eta omenduak izatea.

**Noiztik zarete Alboka Abesbatzeko kide?**

**I.:** Albokak 25 urte egiten dituen bezala, nik hamar urte egingo ditut abesbatzan.

**O.:** Alboka Txikin 1992an hasi nintzen, gero Zandategin egin nituen urte batzuk eta Albokara jauzia egin nuen 1996an... zuzendari aldaketa izan zenean, Daniel Adrianek utzi eta Kristina Perez Abreuk zuzendaritza hartu zuenean.

**Jon:** Ni 1997an pasa nintzen Alboka Txikitik Albokara.

**Alboka abesbatzari buruz nola jakin zenuten?**

**O.:** Nik Albokari buruz, senide batengatik jakin nuen. Haurren abesbatza bat egin behar zela esan zidan eta parte hartzera animatu ninduen. Bertan hasi nintzen eta orain arte.

**J.:** Nire kasuan, ikastolan geundela, musikako klasean Lasarte-Orian haurren abesbatza bat sortu behar zutela esanaz etorri zitzaizkigun.

Eta osabak Albokan abesten zuenez, animatu eta lehengo entseguetara joan nintzen. Ordutik hona.

**I.:** Ni gaurko zuzendaria den Montserekin aurkitu nintzen gau batean eta hitz egiten ginela berak abesbatzan abesten zuela azaldu zidan.

Nire amak bere garaian Andra Mari abesbatzan abestu zuen eta beti izan nuen errezelo hori.

Orduan nik ez nekien Lasarte-Orian abesbatzik zegoenik eta baneuzkan 27 urte.



Alboka Abesbatzak bere lehen kontzertuak San Pedro parrokian eskaini zituen. ALBOKA ABESBATZA

**Alboka Txiki aipatu duzuela, Alboka harrobia lantzen duen abesbatza dela esan daiteke...**

**I.:** Bai, horrela da, Alboka Txiki garrantzitsua da guretzat.

Badakigu zaila dela haurrak Alboka Txikitik Albokara pasatzea. Lehen hamalau, hamasei urtera arte egoten ziren eta orduan ematen zuten pausoa. Gaur zortzi urterekin hasten dira eta hamabi urterekin uzten dute beste ekintza batzuk dituztelako. Hiru edo lau urte horiek egin eta gero zaila da, haurrek etorkizunean Alboka abesbatzan egoteko gogoak mantentzea. Baina horretan saiatzen gara.

**Alboka Txikiko abeslariak izan zaretenok, zein oroitzapen dituzue?**

**O.:** Oroitzapen oso politak ditut, pila bat ikasi nuen eta gustura ibili nintzen.

**J.:** Ni gogoratzen naiz Manuel Lekuona kultur-etxean hasi ginela. Azken pisuan eta gela txiki batean, 30 pertsona sartuta. Ondo pasatzen genuen.

**O.:** Bai, egia da. Orduan pila bat ginen.

**Nahiz eta 1988an Abesbatzako kide ez izan, gogoratzen al duzue zerbait bere sorrerari buruz?**

**O:** Hasierako urteetatik gutxi gogoratzen dut.

Baina nire senidea bertan egon zenez, ba esate baterako, nire etxean egin ziren emakumeen trajeak, "lagarterana" deitzen ditugunak.

Eta kontzertuetara joan izana ere gogoratzen dut.

**J.:** Ni gogoratzen naiz, osabak Polonian izan zirenean opari bat ekarri zidala.

Alboka Txikin sartu arte ez nuen asko jarraitu abesbatza. Osabak egindako kontzertuak jarraitzen nituen, baina batzuk.

> *"Abesbatzarekin batera 25 urte egiten dituzten abeslariak ere badaude. Haiei esker, posible izan da Alboka mantentzea"*

ELECTRICIDAD EZ ARREGUI
• Material elektrikoa
• Argiak
• Etxetresna elektrikoak
• TB/HI-FI
• Instalazio elektrikoak

Aurreztu dirua LED´s argiekin


San Pedro jai zoriontsuak opa dizkizuegu!
www.electricidadarregui.com
Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521



> *"Bidaietan ez dira abesbatzako kideen arteko harremanak bakarrik sendotzen. Beste herrialdeetako jendea ezagutzen duzu"*



Alboka Abesbatzak 1998an bere 10. urteurrena ospatu zuen; aurten, berriz 25. urteurrenean dago murgildua.

**Zaila egin al zitzaizuen Alboka abesbatzaren parte izatea?**

**I.:** Nik nire zalantzak nituen sartu nintzenean, onartua izango nintzen edo ez, nire burua nola ikusiko nukeen bertan. Baina ni oso irekia naizenez erraza egin zitzaidan.

Horregatik, oso oroitzapen onak ditut egin ditugun bidaiekin, ezagutu dudan jendearekin, lagunak egin ditut. Nire esperientzia oso ona da. Ez da bakarrik abestea.

**J.:** Ni hasi nintzenean tenore dezente zeuden eta hamalau urteko gazte bati laguntza eman zioten.

Azkenean Alboka Txikitik pasatzen zara, non ez daukazun partituratik ez ezer, errepikazio bidez ikasten duzula, partitura bat aurrean edukitzera eta azkenean laguntza behar duzu horretara ohitzeko ere.

Baina ni oso gustura izan naiz eduki ditudan abesbatza kideekin. Lagun asko egiten. Beti ere, jendea sartu eta jendea joan... Jende asko ezagutzen eta oso gustura.

**O.:** Bai, giro oso ona egon da beti. Nik ere lagun asko egin ditut. Urte pila daramatzat eta oso gustura egon naiz bai sopranoekin, bai beste kordetako jendearekin.

Alboka adin eta izakera desberdinetako jendea da eta beti egon da lotura bat. Oso zaila da hori hainbeste urtetan mantentzea, baina musikarekin beti errazagoa da.

**Jonek aipatu duenez, txikitan errepikapen bidez ikasten da eta handitan partiturak erabiltzen dituzue. Musika ikastea beharrezkoa al da abesteko?**

**O.:** Ez da beharrezkoa. Belarri pixka bat eta gogoa behar dira. Gehienbat ikasteko gogoa.

**I.:** Nik ez dakit Oihana edo Jonek zerbait bazekiten, baina ni sartu nintzenean ikastolako musika gelan ikasitakoa zen eta geroztik urteak baziren.

**J:** Txirula jotzeko justu-justu ikasitakoa...

**I.:** Baina azken finean Oihanak esan duen bezala, belarri ona baldin badaukazu edo gutxienez saiatzen bazara errazago hartzen dituzu gauzak. Hortaz aparte gogoa izatea da batez ere.

**O:** Gogoa eta interesa azkenean.

**I.:** Gustuko badituzu musika eta abestea, bestea bakarrik doa.

**Bidaiak eta ekintza desberdinak egiten ditu taldeak ere...**

**O.:** Bai, horrela da. Albokaz aparte txangoak egiten dira. Horiek onak izaten dira gure arteko harremana hobetu edo sendotzeko. Eta noski, afarietan beti ongi pasatzen da.

**I.:** Horrek taldea sortzen du eta ez da bakarrik abesbatza kideen arteko harremana sendotzen. Beste herrialdeeetako jendea ezagutzea aberasgarria da.

Nik esate baterako oso gogoan ditut bi bidai, bata sartu eta gutxira egin genuen, Montpelierrera.

Niretzat oso esperientzia polita izan zen jende oso jatorra ezagutu nuelako eta oraindik haietako batzuekin oraindik erlazioa mantendu dudalako.

Beste bidai batzuk Candasera joan ginenean edo Norvegiako bidaia dira... Norvegian beste lagun asko egin nituen ea han oso ongi hartu gintuzten. Ikusgarria izan zen bidaia.

**Herrian hainbat ekintzetan ere parte hartzen du Alboka...**

**O.:** Bai, gure emanaldi finkoetaz aparte, Albokak ahal duen ekintzetan parte hartzen du, Euskararen Maratoia eta horrelako ekitaldietan.

Hori herriarentzat ona da, garrantzitsua ere nire ustez. Herriarentzako kulturalki oso ona da.

**I.:** Musika eta kultura arloan, mugimedu garrantzitsua dago eta horren parte da Alboka.

Udalak edo edozein elkartek zerbait egiteko proposatzen badigu, gu ahal dugun heinean egoten gara hor.

**J.:** Azkenean hori ere abesbatzari ongi etortzen zaio ezagutzera emateko. Jendea animatzeko abesbatzara etorri edo entseguetara probatzeko... Azkenean gauza horiek guztiak gehigarriak dira.

**Eta garrantzitsua da jende berria sartzea...**

**O.:** Bai. Emakumeen kasuan ez dugu arazorik, baina haurrak eta gizonak behar ditugu.

**I.:** Ni sartu nintzenetik beti ikusten zen mutilen aldetik eskas ginela batzutan eta orain batez ere, falta hori somatzen da.

Horregatik deialdi txiki bat egiten diegu herritarrei. Abestea gustuko badute, behintzat.

**San Pedro Jaietan ere parte hartzen duzue normalean, aurten ekitaldi gehiagotan egongo zarete...**

**O.:** Bai. Urtero bezala San Pedro eguneko mezan izango gara abesten.

**I.:** Beste urteetan abesbatzako kideek kantu-jiran parte hartu dute, kontzertu txiki bat ere eskaini dugu...

Eta beno, aurten Alboka omendua izango denez, txupinean egongo gara sorpresatxo batekin.

San Pedro egunean Manuel Lekuona kultur-etxean beste bi taldeekin Beltzak eta Solaskideekin batera omenduak izango gara. Hor ere bi edo hiru abesti eskainiko ditugu.

**Baina ez duzue ikasturtea amaitu...**

**I.:** Ez, horrela da. Uztailean Comillasera goaz. Hainbeste lan eta gero pixka bat disfrutatzera.

Eta noski abestera, bertan kontzertua eskainiko dugu beste bi abesbatzarekin. Eta horrela bukatuko dugu ikasturte hau.

Eta bi hilabeteko atsedenaldiaren ostean, irailean berriro lanera.

**J.:** Horrela 50. urteurrenera arte.

**O.:** Hori da, horrela beste 25 urte. Animoak behintzat baditugu.

**I.:** Bai, gogoz aurrera jarraitzeko asmoa dugu.



Alboka Abesbatzak, harrobia lantzekoa, 1993an sortu zuen Alboka Txiki. Honekin batera, hainbat ekitaldi antolatu ditu.

MUGICA & ABURRUZA
aseguru artekaritza, S. L.
*IBILGAILUAK
MOTOZIKLETAK
AUTOMOBILAK
AUTOKARABANAK
FURGONETAK
KAMIOIAK...
*MERKATARITZA
*BIZITZA ETA ERRETIROAK
*OSASUNA
*ISTRIPUAK ETA GAIXOTASUNAK
*ERANTZUKIZUN ZIBILA
*ETXEBIZITZA ETA KOMUNITATEAK
*INBERTSIOAK
*PYMEAK...
Ganbo Kalea 1 LASARTE-ORIA Tel.: 943 363449 & Faxa: 943 372413
#SPJ2013
Oso ondo pasa festetan!
AUTOESKOLA MUGICA
Ganbo kalea 1, LASARTE-ORIA
Tel.: 943 362275 & Faxa: 943 372413

Aitor Uranga eta Manu Pelaez San Pedroetan omenduko duten Beltzak Rugby taldeko kideak

# “Hazten ari gara”

## Hezkuntza lehenesten du errugbi taldeak. Udalak kirolean gastatu behar duela uste du

***Beltzak taldeak duela hiru urte sortu zuen errugbi eskola eta hainbat neska mutil ari da kirol hori praktikatzen. Gero, handiak egin ahala, Zarautz edo Hernaniko taldeetan jokatzen dute. Beltzak taldekoak pozik daude urte hauetan egindako lanarekin eta baita Udalak aurten sanpedrotan egingo dion aitortzarekin. Hori bai, Udalari kirolean inbertitzeko proposatu diote, zuzendaritzako Aitor Uranga eta Manu Pelaezek kontatu digutenez.***


Aurten Senior mailako errugbi norgehiagokak jokatuko dira Michelinen, Zarautz-Beltzak hitzarmenari esker.

Jon ALTUNA IZA

Beltzak rugby taldeak, 2009an, 25 urte bete zituenean sortu zen eskolaren hazia. Orduan, kirol honetan aritutako herritarrak elkartu egin ziren, berriro, eta asmo horri heldu zioten. Eskolaren lehen urteetako emaitza ona izan da eta egindako lana aitortu du Udalak.

70 bat neska-mutil ari dira eskolan, dozena bat heldu zuzendaritzan, kadete mailako taldea sortu dute, gaztetxoek Hernani edo Zarautzen jokatzen dute eta senior mailakoek, Zarauzko bigarren taldean, lankidetza akordio bati esker.

Gainera, bi talde horien harreman onari esker, aurten errugbi norgehiagokak ikusiko dira Michelinen. Eskolatik ateratako jokalari batzuek Zarauzko bigarren taldean jokatzen dute eta etxeko partidak Michelinen jokatuko dituzte.

**Nola sentitzen zarete omendu izateagatik?**

**Aitor:** Harritu samarrak, egia esan. Ez genuen espero.

**Manu:** Harrituta, bai. Dena den, horrek gauzak ondo egiten ari garela esan nahi du.

Krisi garai latzak dira, eta guk euro bat eskatu gabe, musu truk, egiten dugu lan. Hori aitortzeko modukoa da. Pozik gaude. Hori bai, eskola osoarentzat da saria.

**Zer begiratu da Beltzak-en historia ala azken urteotako lana?**

**M:** Nik uste azken urteotako lana eduki dutela kontuan.

**A:** Beltzak talde amateurra izan da, lagunartekoa. Lagun koadrila bat izan gara. Jesus entrenatzaileak lan handia egin zuen zenbait herritan, ez bakarrik, Lasarte-Orian. Bere diruarekin nazioarteko lehiaketetara eramaten gintuen...

Eta hura gogoratuz, erabaki genuen eskola sortzea eta berriro horretan hastea: “Zergatik ez diegu erakutsiko herriko neska-mutilei? Zergatik ez eman aukerarik? Ondo pasa eta ezagutu dezatela kirol hau”.

**A:** Nik uste hori izan dutela kontuan. Hezkuntzari eman diogun garrantzia. Ez da bakarrik kirola.

**M:** Hori da, kirolaren bidez hezi egin nahi dugu.

**Zer egin da konkretuki azken urteotan?**

**M:** Gure helburu nagusia eskola sortzea izan da. Errugbia eskola mailan lantzen saiatu gara kirola utzita genuen beteranoak. Jada, kadete mailako taldea daukagu, aurrera urrats batzuk eman ditugu, baina garrantzitsuena ez da talde seniorra eta maila bakoitzean taldea izatea, hori ez da funtsezkoa. Egunen batean heltzen bada helduko da, baina ez da gure helmuga.

Gure nahia, eskolan lan egitea da, 7-8 urteko haurrekin hasi eta gaztetxoen mailara arte, gero, jokalariei irtenbidea

***“Harrituta gaude omenaldiarekin, ez genuen espero. Dena den, horrek ondo ari garela esan nahi du”***

emateko, beste klub batzuekin lankidetza akordioen bidez.

Joan nahi duenarentzat ateak beti ditugu zabalik. Gerta daiteke aita Hernaniko jokalari ohia izatea eta ez dugu eragozpenik jarriko: joan nahi badute joan daitezela.

**A:** Joateko aukera badute, ez dago arazorik, horretarako ari gara lanean. Jolasaren eta kirolaren bidez, bizitza, besteekiko errespetua edota lanean konpromezua zer diren erakustea da Eskolaren helburua.

Gero, etorriko dira klub ezberdinak gure jokalari onen bila.

**M:** Nahi duen tokian jokatzeko erraztasunak ematen diegu jokalariei. Lankidetza akordioa daukagu Zarauzko taldearekin eta harreman oso onak ditugu Hernanikoarekin eta, oro har, Gipuzkoako talde guztiekin. Hurbil dauzkagu Hernani eta At. San Sebastian. Norbaitek beste talde batean jokatu nahi badu, gu pozik.

Guk dakiguna erakutsi diegu, ahal genuen mailaraino, eta harro gaude horrekin. Ederra litzateke gurekin hasitako haurrak elitean jokatzea...

Lehen mailan ari dira jokatzen lasarteoriatarrak Hernanirekin, ez bait dago hemen talderik, noski. Guk ere jokatu genuen kanpoan.

**Errugbia berriro presente dago Lasarte-Orian?**

**M:** Bai, nik uste oso errotuta dagoela.

**A:** Utzita zegoen arren, azken urteotan jende askori ezagutarazi diogu eta bere interesa erakutsi digute. Futbola ikusten ohituta zeudenak Michelin-en jokatu diren hiruzpalau partida ikusi eta aitortu dute polita dela edo maila oneko jokalariak direla. Eta hori arauak ondo ezagutu gabe.

**M:** Hurrengo denboraldiari begira, badugu partidak ekartzeko asmoa, hau da, ez dugu senior talderik, baina eskolatik atera diren zenbait jokalarik Zarautzen jokatzen dute, hango klubari ondo iruditu zaio eta Zarauzko bigarren taldeak ligaxkako partidak hemen jokatuko ditu.

**Zenbat lagun dabiltza Lasarte-Oriako errugbi eskolan?**

**M:** 70 bat jokalari inguru izango dira. Kopurua aldakorra da. Eta zuzendaritzan, dozena bat lagun. Gainera, errugbi beteranoak talde handia osatzen dugu, laurogei bat lagun gara.

**Jarraitzen duzue afari eta irteerak egiten?**

**A:** Bai, noski, hori derrigorrezkoa da errugbian.

**M:** Ez lehen bezain beste, baina, batzuk egiten ditugu.

**A:** Krisiak gu ere harrapatu gaitu, baina bi urtean behin atzerrira irteeraren bat antolatzeko ohitura dugu, Sei Nazioen arteko norgehiagokaren bat ikusteko Europako hiriren batean. Oso ondo pasa dugu,







Beltzak errugbi taldeko kide batzuek. Adin askotako herritarrak ari dira buru belarri kirol honetan.

Parisen duela bi urte, eta aurretik Edinburgon, Erroman...

**A:** Aurten test-match partiduak jokatuko dira Sei Nazioetako taldeen eta Argentinaren artean Ingalaterran, ea posible dugun irteera antolatzea.

**Kirol bat baino gehiago da orain errugbia zuen bizitzan?**

**M:** Harra sartu zigun pertsona honek, aipatu dugun gure entrenatzaileak, erakutsi zigun dena ez dela jokoa, hau da, ez diogula hainbesteko garrantzia eman behar. Eskola mailan eta baita askotan federatu mailan ere, emaitzek ez dute guretzat batere garrantzirik, heziketa da garrantzitsua: beste kirol batzuetara lotu ezin ziren haurrak etorri dira errugbira eta ikasi dute kirol honetan diziplinak duen garrantzia.

**A:** Nik lagunari errespetua zor zaiola esan, errespetua zer den azaldu eta oso ondo onartu dute. Haur zailak eta liskartsuak zirela esan bazidaten ere, ez ziren horrelakoak. Bihurri samarrak, agian, bai; baina besterik ez; haurrak dira eta bihurrikeriaren bat egin behar dute.

**M:** Hori bideratu daiteke. Errugbia, kontaktu kirola da, eta hori behar dute askok.



Irudi historikoa.

Bestalde, asko begiratzen diegu haurren eskolako notei. Sarri galdetzen diegu zer moduz dabiltzan. Guraso ala irakasle ez bagara ere, gainean egoten gara, badakigu zeintzuk ez dabiltzan ondo. Ikasi behar badute ez daitezela entrenatzera etorri. Zalantzarik gabe.

Bitxia da, baina gurasoek ez dituzte zigortzen errugbi gabe. Alderantziz: normalean haurrak berak erabakitzen du ez joatea, ikasi egin behar duelako. Hori da gure nahia. Ez dago zigortu beharrik, haurrak ikusiko du ikasi behar badu ez duela entrenatzera joaterik. Ez da ezer gertatzen.

**Beltzak talde irekia da, ezta?**

**A:** Bai, noski. Zenbat eta gehiago etorri, hobe. Gu pozik.

**Zer moduz Ostadarren?**

**A:** Ondo, harreman ona dugu.

**M:** Ostadar-en zuzendaritza berritu egin da gainera. Egitura berria du, sail bakoitzeko ordezkari bat dago orain.

Halaber, sail bakoitza erabat independentea da; Ostadarren barruan gaude, noski, baina, gure kasa funtzionatzen dugu, askatasun osoa daukagu eta eskertzekoa da hori gainera. Gu euren baitan hartu gaituzte eta babesa eman.

**A:** Eta zenbat eta arazo gutxiago eman, hobe da gainera. Ez gara karga izango.

**M:** Udal mailan ere ez. Ez dugu diru laguntzarik eskatzen, ez dugu begiratu ere egin. Ez ditugu nahi. Gure kasa konpontzen gara egiten dugun apurrarekin. Iristen garen lekura iritsiko gara, baina geure ahaleginari esker.

Egia esan, hasi ginenetik harrera oso ona eduki dugu.

**A:** Oro har gurasoek ez dute gure kirola ezagutzen, bortitz samarra dela ikusten dute, eta beldurtu egiten dira, baina haurren artean ez da horrelakorik.

***“Baldintza egokirik gabe herritarrek kirola egiten dute. Hala ere, laster ez da zelaian tokirik izango. Hazten ari gara eta txikia geratu da”***

Partida guztietan banatzen dugu errugbiaren filosofia azaltzen duen orri bat.

**Zer egingo duzue Sanpedrotan?**

**M:** Eskolako haurrei eman nahi diegu protagonismoa, azken finean eurak dira saria merezi dutenak. Guk gure esperientzia eta bitartekoak jarri ditugu, baina besterik ez.

Haurren txupin jaurtiketan, eguerdiko 12:00etan txikienak igoko dira balkoira eta arratsaldekoan, nagusiagoak. Manuel Lekuona kultur-etxeko aitorpen ekitaldira helduenak joango gara.

**Eta, zuek, egiten al duzue parrandarik jaietan?**

**A:** Zerbait egingo dugu. Beti bezala. Zahartzen hasiak gaude, baina...

**M:** Beteranook, ez dugu ezer berezirik prestatu. San Pedro egunean, Manuel Lekuonan 13:00etan egingo den ekitaldira joango gara, eta agian gau horretan egingo dugu, ikusiko da, momentuan erabakiko dugu, ez gaude trote handietarako eta beste eginbeharrak ere ditugu...

**Besterik esan nahi baduzue...**

**M:** Gaur egun ikusten ari garena aipatu nahi nuke. Musu truk egiten dugu lan, borondatez, haurrek ez dute ezer ordaindu behar, kontrakoa, kamisetak eta abar ematen dizkiegu. Gure filosofiaren barruan dago, kirolariek ez dezatela txanpon bat ere jarri eta horretan saiatzen gara. Horregatik eskatzen diegu Kirol zerbitzukoei eskuzabaltasuna. Orain artean arauei eman zaie lehentasuna, eta badakigu araudiak hor daudela guztion segurtasuna ziurtatzeko, baina tartean pertsona arduratsuak daudenean, malgutasuna eskatzen dugu ez daitezela arauekin hain zorrotzak izan.

Pablo Barrio alkateari eta Taxio Arrizabalaga kirol arduradunari jakinarazi diogu, eta datorren urtetik aurrera gauzak aldatuko direla uste dugu. Argi dugu, bestalde, kirol arloan inbertitu beharra dagoela.

Zelai onik ez dago, eta zorte handia dugu herri honetan, baldintza egokia duen zelairik gabe, herritarrek kirola egiten dutelako. Egia da, zelaia berritu dela eta rugbian aritzeko makilak jarri dituztela, baina, oro har begiratuta, laster ez da denok entrenatzeko tokirik izango. Gu hazten ari gara, eta txikia geratu da. Badakigu egun ez dagoela dirurik ezertarako, baina kirolean inbertitzea beharrezko jotzen dugu.

**Ez al da arraroa zelai artifizialean jokatzea?**

**A:** Leku askotan jartzen ari dira. Arrasaten aspalditik daukate errugbi zelai artifiziala. Ordiziak ohorezko mailan jokatzen du artifizialean. Lehen Michelin futbol taldeak soilik jokatzen zuenean, oso ondo zaintzen zuten, baina gaur egun, talde askok erabiltzen du txandaka eta oso zaila da zelaia zaintzea, munduko lorazain onena izanda ere, ez dago zer eginik. Ez zuen irauterik eta artifiziala jarri beste konponbiderik ez zegoen.

**M:** Denbora gutxian, herriko kirolaren egitura eta antolaketa aldatu beharko dute. Ez dago tokirik eta konponbidea bilatu beharko dute. Eta hau, ez da zoritxarra, onura baizik. Haurrek kirola egin nahi baldin badute, bitartekoak eman beharko zaizkie, eta kirolean inbertitu, zailtasunak daudela badakigun arren. Hori da etorkizuna.

Zer nahi dugu? Haurrak kirolean aritu baino beste nonbaiten egotea?



Solaskideak Omenduak

# "Euskaraz bizitzeko lehen urratsa da solaskide"

## Euskaldun berriak eta zaharrak elkartzen ditu egitasmoak euskaraz hitz egiteko

***Guztira 120 lagun dira egun Ttakunek kudeatzen duen Solaskide programaren baitan. Hauen artean euskaldun berriak eta zaharrak daude. Udalak solaskide guztiak omentzea erabaki du San Pedro jai hauetan "benetako esfortzua eta konpromezua solaskideena da. Euskaraz mintzo bai, baina hizkuntza bera erabiltzeko testuinguru egokirik eduki ez arren, hau sortu, bilatu, garatzeko lana egiten ari diren guzti horientzat da omenaldi hau".***

Maider AZURMENDI



Ezkerretik, Kandi Sanchez, Ainhoa Oiartzabal, Juan Segurola, Gerardo Zarzuelo, Ilu Amundarain solaskideak eta Junkal Perez egitasmoaren arduraduna Ttakunen.

Ainhoa Oiartzabal, Juan Segurola, Kandi Sanchez eta Gerardo Zarzuelo dira egun Solaskiden parte hartzen duten 120 herritar horien adierazle. Ainhoa eta Juan euskaldun zaharrak dira, euskaldun berrien bidelagun. Kandi eta Gerardo berriz, euskaldun berriak.

Junkal Perez da Ttakun kultur elkartearen baitan egitasmoaz arduratzen dena eta berarentzat txalogarria da solaskide guztiek astero-astero egiten duten ahalegina. Oso talde jatorrak izateaz gain, "elkarteak herrian antolatzen dituen ekintzetan parte hartzeko ere beti prest izaten dira eta hori eskertzekoa da". Junkalek argi dauka, omenaldia merezi dute bidelagun eta solaskideek maila berean.

**Noiztik zarete solaskide? Zenbat lagun elkartzen zarete mintzapraktika egiteko?**

**Juan Segurola:** Ez dut ondo gogoratzen, ez dakit lehenengo taldea izango zen baina etxean bilatzen hasita, 1997. urteko zerrenda bat gordeta daukat oraindik.

Gogoratzen dut Iñaki Arruti udaleko euskara teknikaria zebilela euskaldun zaharren bila eta programaren inguruan berak hitz egin zidan. Animatu nintzen taldetxo bat hartzea eta geroztik jarraitzen dut, 15-16 urte izango dira beraz.

Nire kasuan momentu honetan 6 lagun elkartzen gara, bi euskaldun zahar eta lau berri. Lagun koadrilan elkartzea bezala da.

Urte hauetan guztietan noski, beti joan da jendea aldatzen, berriak sartzen, baina oinarria mantendu egin da.

**Ainhoa Oiartzabal:** Nire kasuan bi urte izango dira hasi nintzela. Ttakuneko Junkalek komentatu zidan euskaldun zaharren beharra zutela.

Euskara ikasten ari direnek laguntza behar badute eta nire esku zerbait egitea zegoela ikusita, animatu egin nintzen.

Niretzako euskara altxor bat da eta hizkuntzaren alde zerbait egin ahal izateak benetan merezi duela uste dut.

**Kandi Sanchez:** Euskaltegian izan nuen Solaskide egitasmoaren berri eta Ainhoarekin hasi nintzen duela bi urte.

Euskaraz hitz egitea kostatzen zitzaidala ikusita, lotsa eta segurtasun falta hori edo kendu nahi nuen.

Pixkanaka noa baina oso pozik nago urrats hau eman izanaz. Orain lagun berriak egin ditut, dantza euskaraz egiten dut eta nire inguruan euskaraz hitz egiten dudan jendea daukat.

**Gerardo Zarzuelo:** Bost urte izango dira hasi nintzela Solaskiden. Txintxarrin ikusi nuen ikasturte hasieran taldeak osatzen ari zirela eta izena ematera animatu nintzen.

Nire kasuan, konturatu nintzen geroz eta gutxiago erabiltzen nuela euskara eta ikasitakoa ere galtzen ari nintzela nolabait. Horri irtenbide bilatu behar niola argi neukan eta Solaskide aproposa izan zitekeela pentsatu nuen. Egia esan, hala izan zen.

> ***"Lehen saioa gainditdata, lagun koadrilarekin elkartzea bezala da, oso gustora aritzen gara"***

**Zer suposatu du solaskide izatea zuentzat?**

**Kandi:** Hasieran pixkat urduri hasi nintzen baina gero konfiantzarekin primerako esperientzia da.

Taldean erraza da beldurra galtzea eta oso gustora nabil. Ez dakit beldurra den baina euskaltegiko azterketan ahozkoan, trabatu egiten naiz eta solaskide-n berriz ez, konfiantza daukat... oraindik pixkat falta zait guztiz askatu eta lasai hitz egiteko.

**Gerardo:** Solaskiden parte hartzea lagun gehiago egitea ekarri dit, eta lagun hauekin hasieratik euskaraz hitz egitea.

Lagunak, harremanak zabaldu ditudan neurrian, euskararen erabilera handitzen joan naiz eta segurtasuna hartzen joan naizenez, euskara beste esparru batzuetan ere erabiltzen dut.

**Juan:** Urtea amaitzerako lagun artean biltzen garela esan daiteke. Guretzako solaskide izateko tartea aurkitzea da. Jendea lasai etortzea eta gustura pasatzea gurekin ematen duen denbora.

**Ainhoa:** Niretzako esfortzua beraiek egiten dute, guretzat lagun batzuekin biltzeko tartea aurkitzea da.

**Hizkuntza bat baino gehiago da orain euskara zuen bizitzan?**

**Juan:** Taldeko norbait kalean topatuta euskaraz hitz egitea ateratzen zaie eta saretxo hori sortzen laguntzen dugu guk bidelagunok.

Oso ekintza interesgarria da Solaskide, dinamikoa, erraza, beste errealitate bat ezagutzea dakar. Kanpotik agian arraro ikus daiteke ezezagun batekin elkartzea astero hitz egiteko, baina modu naturalean eratzen dira harremanak.

**Gerardo:** Esan bezala harreman berriak ditut euskarari esker eta euskaraz. Solaskiden egonda animatu ninduten ere antzerkia egitera eta hirugarren urtea da euskaraz antzerkia egiten dudala.

Oso pozik nago ekintza ezberdinak egiteko aukera ere eman didalako solaskide izateak.

**Kandi:** Hasieran, lehenengo saioan oso urduri etorri nintzen baina konfiantza hartzen zoazen neurrian, primerako esperientzia da.

Euskaltegian nago eta hitz egitea gutxiago kostatzen zait orain, nire helburua hasi nintzenetik alabekin euskaraz mintzatu ahal izatea izan da. Erraz galdu diot beldurra eta geroz eta jende gehiagorekin hitz egiten dut euskaraz.

Euskaldun giroan sartzea niretzako funtsezkoa izan da. Dantza egiten dut, orain beste gune batzuk ditut eta nik ere lagun euskaldun gehiago ditut.

Orain arte euskaltegitik atera eta nolabait hor mozten zen harremana hizkuntzarekin, handik atera eta euskaraz egiteko aukerarik ez neukalako.

**Berezia al da zuentzat udalak egiten dizuen aitorpen hau?**

**Gerardo:** Omenaldiaren harira pozik nago baina nire ustez esfortzu gehien egiten duena Ttakun da. Elkarteak sortu du sare hau eta honen baitan gaude gu solaskideok, horren parte gara.

Benetan elkarteak egiten duen lana azpimarratu nahi nuke nik omenaldi honen baitan. Asko dira sustatzen dituen ekintzak eta guzti horietan parte izateko aukera ematen digu aipatutako gure lagun sarea handitzeko parada emanez.

**Ainhoa:** Niretzako satisfazio handia da nire solaskideen aurrerapenak astetik astera ikustea, pauso handiak eman dituzte.

Horretaz gain, saltsa guztietan sartzen dira eta oso prest daude gauza berriak ezagutzeko, hauetan parte hartzeko...

Horregatik ere omenaldiaren protagonistak beraiek direla uste dut. Esfortzu handia egiten dute, benetan euskaraz bizitzeko ahalegina egiten dutenak beraiek dira. Gurea, lehen esan bezala ez zait aparteko lana iruditzen.

**Juan:** Udalak erabaki du onarpen publiko hau egitea eta ondo ikusten dut.

Taldeari aitorpena egitea ona da baina pertsonalki, ez dut behar. Nik gustura, erraz egiten dut... Solaskide programak berak merezi du. Oso dinamika erraza da eta beste errealitate bat ezagutzeko aukera ematen du.

**Kandi:** Ni pozik nago omenaldiagatik. Niretzako solaskide izatea gauza polita da eta horrela hartzen dut ere omenaldia, ez nik pertsonalki merezi dudalako baizik eta jende askok parte hartzen duelako herrian.

Nik euskaltegian ezagutu nuen egitasmoa eta agian omenaldi honekin jende gehiagok izango du honen berri. Oraindik badira euskara politikarekin lotzen dutenak eta mamu horiek baztertu behar dira.

**Hitz onak besterik ez dituzue Solaskiderentzat...**

**Kandi:** Bai hala delako. Aipatu bezala honen parte izatea guretzat oso ona, baikorra izan da, asko lagundu digu. Euskaraz hobeto hitz egiten ikasteaz gain, lagun euskaldunak edukitzeko aukera eman digulako.

Horretaz gain, Ttakunek antolatzen dituen ekintzetan parte hartzeko aukera dugu eta besteak beste taloak egiten ere ikasi dut San Tomasetan. Duela urte batzuk hau niretzako pentsaezina zen.

**Baina Solaskideentzat ere egiten dira ekintzak...**

**Gerardo:** Bai esan bezala guretzat ere afariak antolatzen dira eta dinamika ezberdinak egiten ditugu ikasturtean zehar. Horrek gure artean lagunak egitea ahalbidetzen digu eta oso giro polita daukagula esango nuke.

Nik behintzat gomendatzen dudan esperientzia da eta uste dut, bai euskaldun berrientzat baita zaharrentzat ere, aberasgarria dela.

**Kandi:** Azkenean euskararen inguruan elkartzen gara jende pila bat. Herritar asko gara programa honetan parte hartzen eta ekintza polita den neurrian, nik ere noski gomendatzen diet ni bezalako euskara ikasleei honetan parte hartzera.

Oso ondo pasatzen dugu eta denetatik egiteko aukera dugu. Euskaraz bizitzeko lehenengo pausoa da Solaskide ni bezalako herritar askorentzat.



Solaskideek talde dinamika eta joko ezberdinak egiten dituzte ere ikasturtean zehar.

> ***"Solaskide egitasmoa berak merezi du omenaldia edo aitorpena. Solaskide oso dinamika erraza da eta beste errealitate bat ezagutzeko aukera ematen du"***






Arantza Zulaika Kartel lehiaketako irabazlea

# “Jaien aniztasuna islatu nahi nuen”

## San Pedro jaietako kartela egiteaz gain, Usurbilgo festen egitaraua ere egin du aurten

***Arantza Zulaikak 27 urteko herritarrak irabazi du aurten San Pedro jaiak iragartzeko kartel lehiaketa. Arantzak diseinu grafikoa ikasi zuen eta pozik dago kaleetan bere kartela ikusteaz. Hala ere, ez da sari bakarra izan. Usurbilgo jaietako egitaraua diseinatzeko lehiaketa ere eskuratu du aurten. Gazteak oraindik ez du sinisten bi sari hauek eskuratu izana.***

Maider AZURMENDI

Hainbat lehiaketetan parte hartu ondoren jarraian iritsi zaizkio bere lehenengo lan sarituak Arantzari. Bere herriko festen kartelarena eta Usurbilgo festen egitarauaren diseinu lehiaketa hain zuzen.

Oso harro dago bereziki Lasarte-Oriako kartelaren emaitzarekin. Mota guztietako kritikak jaso dituela ere aitortzen du gazteak, “kritika txarrek, edo ez hain onek aberasten dute gehien”.

**Zure kartelak iragartzen ditu San Pedroak. Zergatik aurkeztu zinen lehiaketara?**
Iaz berandu jakin nuen kartel lehiaketarena eta pena handia hartu nuen. Aurten lagun batek esan zidan eta lana aurkeztera animatu nintzen.

Usurbilen ere egitaraua diseinatzeko lehiaketa martxan jarri zuten eta hau ere irabazi egin dut. Ordu erdiko diferentziarekin jakin nuen biak irabazi nituela eta poza izugarria hartu nuen, ez nuen inolaz espero. Momentuan sinestu ere ez nuen egiten.

**Zer suposatzen dute sariek?**
Diseinuan ari garenontzat garrantzitsuak dira halako lehiaketak irabaztea. Kurrikulumerako oso onak dira eta normalean lana bilatzeko garaian oso kontutan hartzen dira. Aurretik parte hartu izan dut beste lehiaketa batzuetan, asko ez, denbora behar delako behar bezalako lan bat aurkezteko, eta orain arte ez da zorterik egon.

**Zertan oinarritu zinen lanean hasteko garaian?**
Nik uste dut eragina duela zure herriko festen kartela izatea. Kartela egiteko garaian, festak sentitzen dituzun bezala islatu nahi dituzu ere, jaiak ondo ezagutzea garrantzitsua da.

Lasarte-Oriako jaiak anitzak dira, asko dira ekintza garrantzitsuak eta desberdinak ere parte hartzen duten taldeak eta azkenean San Pedroak talde eta ekintza horiek guztiak dira.

**Zer adierazten da?**
Estiloa, marrazteko joera asko dut. Ideia neukan ekintza garrantzitsuenak sartzeko ez bat edo bi, asko, eta hori gauzatzeko marrazkiek, ilustrazioek ematen zidaten jokoa.

Horretaz gain, retro kutsua badu, hasieran txuria eta gorrian oinarritu nahi nuen kartela baina blusak ere sartu nahi nituen eta horiei koloreak eman.

Marrazki, irudi asko izanda, ez nuen kartela estridentegia egin nahi eta horregatik kolore itzalduak sartu nizkion, ukitu retro hori ematen dutenak alegia. Nire ustez estetikoki joko polita, berezitasuna ematen dio koloreak berak lanari.



Arantza bere kartelaren irudiaz harro dago.

> **“San Pedrotako kartela egiteko garaian, festak nolakoak diren ondo ezagutzea garrantzitsua dela iruditzen zait”**

**Kritikak jaso al dituzu?**
Bai, kritika onak eta txarrak jaso ditut. Lagunek orokorrean kritika onak egin dituzte baina gertuko beste batzuek esan didate ez zitzaiela gehiegi gustatzen irudi asko zeukalako. Baina gustatzen zait hauek ere esatea, aberasgarria da batez ere hurrengo lan bat egiteko garaian kontutan hartzeko. Kritika txarrak gutxi, baina ondo dago jakitea.

**Saria 300 eurotakoa da...**
Bueno saria ez da asko baina ondo etortzen da udari begira lasaitasun pixkat ematen du. Kontatzen ez duzun dirutxo bat da eta ondo dator.

**Jendeak bozkatu ahal izan ditu kartelak...**
Gertuko jendeak botoa eman du bai baina bestela ez dut asko zabaldu. Azkenean udalak azken hitza zeukala jartzen zuen oinarrietan eta bozei ez nien garrantzia berezirik eman.

**Lehiaketako beste lanak zer iruditzen?**
Ba aukeran, gehiena danborjolearena gustatzen zitzaidan. Teknikoki oso ondo eginda zegoela iruditzen zitzaidan.

**Zer dira San Pedro jaiak zuretzat?**
Niretzako San Pedro jaiak bereziak dira, oraintxe, oso gertukoak direla esango nuke gainera.

Okendo plaza berria ireki zenetik erdigunera jaitsi eta beti festetako zerbait egoten da.

Lehen dena sakabanatuta zegoen, auzoetan gune desberdinak zeuden eta agian herriko festak ez ziren hainbeste bizitzen. Orain anitzak izaten jarraitzen dute baina Okendo da denentzat festaren bihotza eta horrek jai herrikoiagoak egiten dituela iruditzen zait.



# Zer egingo duzu San Pedro jaietan?



**Xabier Mantecon**
Aurten umearekin lasaiago ibiliko naiz iaz baino, desberdina izango da. Iazko egitaraua eta festak oso onak izan ziren. Aurten, txupin jaurtiketan egongo naiz Beltzak nire taldearekin; entrenatzailea naiz eta gogo handia daukat. Poz handia eman digu, 28 urtetan herrian lanean eta lehen aldiz omendu gaituzte. Oparia izan da. Eta bestela, bi haurrekin paseatu egingo dugu. Igandean, agian, bueltatxo bat emango dut, baina asteburuan behintzat lasai.



**Mari Angeles Sagastibeltza**
Ez dut sanpedrotan ezer berezirik egiten. Zerbait dagoenean ikustera joaten naiz. Besterik ez. Bestela etxean egoten naiz. Izan ere, ez naiz inoiz oso festazalea izan. Senarrik ez dudanez, semealaba eta bilobekin aterako naiz. Umeekin oso gustura ibiltzen naiz, puzgarri eta horrelakoetan. 40 urte daramazkit hemen, baina niretzat Leitzako festak dira onak, aste guztia ematen dut festetan. Han biltzen gara denak, senide guztiak.



**Manex, Markel, Aritz eta Iker**
Gehiena, lehenengo eguneko txupinazoa gustatzen zaigu eta, horretaz gain, buruhaundiak ere bai; beraiekin jolasten oso ondo pasatzen dugu. Zezenetara ere joaten gara. Baina ez gara joaten ikustera, ez, zezenen aurrean jartzen gara. Gehienak oso txikiak dira, baina, iaz, handi bat atera zuten. Barrakak ere politak dira. Han goitik desberdin ikusten da dena, Sasoetako etxe handietaraino. Batzutan beldurra izaten da, baina, oro har, oso ondo pasatzen dugu.



**Ane Irazusta-Miren Bardaji**
Gogoz gaude, sanpedroak hasteko, urte osoan zain egon gara eta. Ikasketak bukatu ditugu eta uste dugu badela ospatzeko garaia. Txosnetan ibiltzen gara gu gustura, eta pozik gaude Okendon jarri delako, erdi erdian, eta hori aprobetxatu egingo dugu. Txosnak herriko plazan edukitzeak herriari berari beste giro bat ematen dio. Kontzertuen egitaraua hobetu zitekeen, baina, ez du asko inporta, ziur gaude giro ona egongo dela.



**Alvaro Gil**
Aurten txikien planak daukagu, desberdinak. Hala ere, berdin berdin pasatuko dugu ondo. Hauek kozkortzen direnean ibiliko gara lehen bezala, lagunekin parrandan, gora eta behera. Gogoa badaukagu, baina... gazteak gara oraindik. Iaz sekulako giroa izan zen, aspaldi ikusi ez ziren festak izan ziren. Udal berriak horretan pisua izan du eta gazteek ahalegin handia egin dute, azken urtetako oztopoak gainditzeko. Iazko festak errepikatzeko modukoak izan ziren.



**Unai Ieregi**
Urte guztian honen zain egon eta gero, gogo handia daukagu. Batez ere, herri giroa sustatu nahi dugu, ea denok elkartzen garen parranda eder batzuk egiteko eta, egunean zehar ere, denon artean giro polit bat sortu... herriko denak elkartzen gara; urtean zehar, ikasketengatik, lanarengatik edo bestela, ikusten ez ditugunak ere bai, eta giro berezia izaten da sanpedrotan. Diru aldetik ez dira garai onenak, baina antolatzaileek ahalegin handia egin dute.

## Ai, Sanpedro, Sanpedro, astero balego...



**Pablo Barrio**
Lasarte-Oriako Alkatea

Beste urte bat igaro eta herriko festak iritsi zaizkigu berriro. Egunerokotasunak sortzen dizkigun ardurak albo batetara utzi, biba la potrusia! oihukatu eta, eskuak lurrean oin moduan, hankaz gora eta buruz behera ibiltzeko unea. Udararen sarrerarekin, urtean zehar izandako gazi-gozoak festa bilakatuko ditugu eguzki eta ilargiaren argipean (San Pedrok ez du urik ekarriko aurten, ziur!).

Aurten ere, herritar ugarik hartu dute parte jaiak antolatzen, baita elkarteek ere: Sorgin Jaiak, Ttakun, Ostadar... eta lanean diharduten guztiak. Baditugu omenduak izango diren taldeak ere: Beltzak, Solaskide eta Alboka, beraien melé jario eta kantuekin. Eta ez da faltako, festetan zehar inprobisatzeko prest, aurtengo festak markatuko dituenen bat ere. Bestetik, bertan egon ezingo dutenak ere buruan izango ditugu ziur eta beraiengatik ere topa egingo dugu.

Barre, ziri, alaitasun eta kolorez beteko da herria eta lau egunez ez da isiltasunik egongo. Lasarteoriatarrak elkartzeko sortuak, guztionak izateko sortuak, koloretsuak nahi ditugu gure kaleak, parte-hartzaileak, aniztasunaren erakusleak, berriki jantzi dugun irudi korporatibo berriak islatzen duen moduan, horiek guztiak aberasten baikaituzte.

Tok! Tok! Sanpedroak dauzkagu ate joka! Ateak ireki, beraz, eta denok kalera! Heldu, gazte edo umea izan, gizon edo emakume, Sanpedroak goza ditzagun elkarrenganako errespetu gozoan, guztionak dira eta! Bukaeran, azken etxafuegoa bota eta gero, etxerako bidean jada, esan ahal izateko, "Ai, Sanpedro, Sanpedro, astero balego.".













# Ekintza ugari Ttakunen esku

## Kultur Elkarteak ohiko ekintza arrakastatsuak antolatu ditu San Pedro jaien baitan, aurtengoan hori bai Sagardo Dastaketa igandean egingo da

***Ttakun kultur elkarteak hitzordu nagusienak mantendu ditu San Pedro festen baitako egirauean. Haurren bazkaria eta ur jolasak, Sorgin Dantza, zikiro afaria, bertso saio berezia, sagardo dastaketa izango dira besteak beste jai egun hauetan. Ttakunetik herritarrak ekintza hauetan parte hartzera animatzen dituzte festak euskaraz gozatzeko.***

Ttakun kultur elkarteak urtero bezala hainbat ekitaldi antolatu ditu San Pedro jaien baitan euskal giroa herriko kaleetan zabaltzeko asmoz.

Urtero antolatzen dira eta herritar askok parte hartzen du. Adin guztientzako ekintza sorta prestatu da aurtengoan ere eta ohi bezala herritarren aldetik harrera ona izatea espero da. Hauetako batzuek arrakasta ziurtatuta dute, Sorgin Dantza eta Zikiro afaria esaterako.

### Haurren bazkaria

San Pedro Egunaren bezperan haurren txupinazoa egingo da bigarrenez eta honen ondoren, 12:00etan izango da hau, 13:00etan haurren kalejira egingo da eta 14:00etan Atsobakarren haurren bazkaria antolatu ditu Ttakunek aurreko urteetan bezala.

Begiraleen laguntzarekin Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. maila arteko ikasleek Okendo plazatik aterako dira kalejiran Atsobakar auzoraino, bertan makarroiak bazkalduko dituzte eta bazkalostean Busti Blai ur festa egingo dute.

Ur jolas ezberdinak burutuko dituzte haurrek 16:30ak arte eta antolatzaileen hitzetan berrikuntzak izango dira. "Ziur haur eta gaztetxoek gustura hartzen dituztela jolas berriak."

Ikastetxeetan lagun koadrilaren izena eta irudiarekin margotutako kamisetak erakusteko aukera izango dute gainera 9-12 urte bitarteko haurrek egun honetan.

### Sorgin dantza Oriatik

Jaietako adierazgarri da Sorgin Dantza eta aurten ere ez du hutsik egingo.

1994tik antolatzen du Ttakunek dagoeneko Lasarte-Oriako herriaren eta bertako festa nagusien ikur bihurtu den Sorgin Dantza.


Makarronada egin ostean, Busti Blai ekintza burutuko da haur eta gaztetxoekin Atsobakar auzoan.

Azken urteotan parte hartzaileen kopurua asko ugaritu da eta haurrek ere egiten dute kalejira eta dantza. Helduen zortzikotearekin batera gazteen zortzikotea ere osatu da aurten eta zerrenda luzetik zozketaz hautatu behar izan dira kideak.

Sorgin Dantza, Oriatik abiatuko da 16:30etan gutxi gorabehera.

Aurten bidean dantzariek egingo dituzten geldialdiei dagokionez, Orian lehenengoa, Biyak Bat elkartearen parean bigarrena, Udaletxearen parean, Tajamarreko errontondara iritsi aurretik ere dantza egingo da eta azkenik, Hipodromo etorbidean egingo da plazara sartu aurretiko azken dantza.

Okendon 19:00etan txupina bota aurretik iritsiko dira dantzariak.

Gau honetan askorentzat ere tradizio bilakatu den zikiro afaria egingo da Okendo plazan. Arratsaldeko lehen orduetatik arituko dira sukaldariak 22:00etarako guztia prest izateko.

Entsalada eta zikiroa egongo da 300 lagunentzat, giro ezin hobean. Honetan parte hartzeko salgai izan dira txartelak azken bi asteetan.

Bapo afalduta, dantzarako garaia izango da, afalostea Gozategi talde mitikoaren doinuek girotuko dute.









## Sorgin Dantzan herritarren parte hartze handi espero da, gaztetxoen zortzikotea osatzeko zozketa egin behar izan da izena eman zuten guztien artean

### San Pedro egunean bertsoak

San Pedro egunean bertsoez gozatzeko aukera eskainiko zaie herritarrei.

San Pedro jaietako bertso saio berezia Manuel Lekuonan egingo da 22:00etan.

Aurten, herriko bertso eskolako Ane Labaka, Asier Azpiroz eta Patxi Etxeberria bertsolariekin batera kantatuko dute punta puntako beste hiru bertsolarik, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Beñat Gaztelumendi. Gaiak Unai Muñoak jarriko ditu.

Bertso saio polita antolatu du aurtengoan ere Ttakuneko Earra! Bertso eskolak.

Sarrerak egunean bertan erosi ahal izango dira Manuel Lekuona kultur-etxeko lehiatilan 4,60 eurotan edo aurrez interneten *www.lasarteoria-sarean.eu*-n 4,32 euro ordainduta.

### Kantu Jira berezia

Igandean, Ttakunen egitarauan gero eta arrakasta handiagoa duen kantujira egingo da goizean.

Aurten berrikuntza modura, dantza plazako dantzariek lagunduko dute kantujira.

Hilaren 30ean eguerdiko 12:00etan abiatuko dira Sagardotegi kaletik euskal abestiak kalez kale kantatu eta dantzatuz. Xumela abesbatzak eta Albokako kide batzuek parte hartuko dute honetan euren ahotsak batuz.

Iluntzean Sagardo dastatzea eta erromeriarako tartea izango da. 18:00etan hasiko da Okendon eta 20:00ak arte luzatzea espero da.

Honetan herriko Sollane, Buenavista, Telleri, Zubillaga eta Saltsate baserrietako sagardoa banatuko da eta erromeria Amalur eskolako soinujoleek girotuko dute.

Gauean Boston Jai taldeak kontzertua eskainiko du Okendoko agertokian 23:00etatik aurrera.

### Jalgi

Jalgi festa giroan murgilduko da eta ekainaren 29an, larunbatean DJ Makala arituko da musika jartzen gauerditik aurrera.

Egitarau oparoa aurten Ttakunek antolatutakoa adin guztientzat eta festak euskaraz bizitzeko helburuarekin.


Zikiro afaria ostiralean izango da Okendo plazan eta afalostea Gozategi taldeak girotuko du.


Sorgin Dantza San Pedro bezperan herriko kaleetan barrena izango da.





# San Pedro jaiak iritsi dira!!!



Berriro ere hemen dira San Pedro Jaiak!!! Blusak prestatu bihar, emango baitzaie hasiera Lasarte-Oriako festei. Lehenik haurren txupina izango da goizean eta arratsaldean, berriz, txupina Okendo plazan. Aurten Udalak Alboka Abesbatza, Beltzak Errugbi taldea eta Solaskideak omenduko ditu eta hauek emango diote hasiera festari. Lau egunez, egunerokotasuna alde batera utzi eta Lasarte-Oriako kaleak pozez eta jai giroz beteko dira. Kontzertu, antzerki, haurrentzako ekitaldi edo kirol ekintzak izango dira herriko txoko guztietan. Animatu eta gozatu gure jaietaz!!!!

SANCHO TABERNA



Kaxuela, pintxo eta morunoetan espezializatua

Ogitartekoak
Pintxoak
Plater konbinatuak
Eguneko menua

HITZARTUTAKO eta TALDEENTZAKO MENUAK

SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU !

Oriamendi enparantza 1 behea • Lasarte-Oria • Tel.: 943 372075

## Osteguna 27

**17:00**
**Sari banaketa** Jubilatuen Elkarteak egindako jardueren-gatik eta jarraian luntxa eskeiniko zaie parte hartu dutenei.

**23:00**
**Kontzertuak. Skakeitan, Unsain Anaiak eta Pistoletak** Okendo plazan. Sorgin Jaiak antolatua.

## Ostirala 28

**12:00**
**Haur Txupinazoa.** Jaiei hasiera emateko, haur txupinazoa botako da Udaletxetik, eta Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa abiatuko da, Oriako Txaranga eta Koskola Txarangaz lagundurik.

**12:30**
**Abesbatza. Biyak Bat** Jubilatuen Elkarteko Abesbatzaren emanaldia Manuel Lekuona Kultur-etxean.

**13:00**
**Haurren Kalejira.** Okendo plazatik abiatuta, Atsobakarreraino. Oriako Txarangak lagundurik.

**14:00**
**Haurren bazkaria.** Haurren herri-bazkaria Atsobakarreko parkean.

**15:00**
**Ur jolasak.** Bazkalondoan, uretako jolasak Atsobakar auzoan.

**16:00**
**Busti Blai**. Busti Blai jarduera, Atsobakarreko plazetan barrena.

**17:00**
**Sorgin Dantza**. Sorgin-Dantza abiatuko da Oriatik, eta Okendo Plazan bukatuko da.



**19:00**
**Txupinazoa**. Pregoia Udaletxe berriko balkoitik Okendo plazan.

**19:30**
**Kontzertua.** Lasarte-Oriako **Zero Sette akordeoi orkestrak** pop eta rock akordeoi bertsioak eskainiko ditu, Okendo plazan.

**20:00**
**Kalejira. Elegancia Mexicana Maraitx**ien kalejira. Okendo plazatik Andatza plazarantz abiatuko dira.

**20:20 :**
**Kontzertua. Elegancia Mexicana Mariatx**ien emanaldia Andatza plazan.

**21:00**
**Zikiro afaria.** Ttakunek antolatuta, Okendo plazan.

**23:00**
**Danborrada. Beteranoen danborrada** tradizionala, Oriako Txaranga eta Eibarko Gastadoreak lagun dituztela, Okendo plazan hasi eta herriko kaleetan barrena.

**23:00**
**DJ Lehiaketa.** Lasarte-Oriako Ostalarien elkarteak antolatutako DJ lehiaketaren finala Andatza plazan.

**24:00**
**Kontzertua. Gozategi**ren eskutik erromeria Okendo plazan.

**02:00**
**Karaokea.** Ordu txikiak arte abesteko aukera Okendo plazan.

## Larunbata 29
### San Pedro eguna

**09:00**
**Diana. Amalur** trikiti eta pandero eskolako txistulariek diana joko dute.

**11:00-13:30**
**Haur parkea. Irrien Lagunak haur parkea** Isla plazan.Puzgarriak, jokoak, etab.

**11:30**
**Pilota.** Eskuzko pilota-partidak Jubenilen eta 1. Mailako seniorren kategorietan, Loidibarrengo frontoian.

**12:30**
**Herri kirolak.** Elizatze plazan. Harri-txikiak, altuerako mozketa, 3 kirolarien arteko lehia, aitzurrarekin egur mozketa, motozerrarekin trebetasun probak eta trontza proba herrikoia.

**13:00**
**Omenaldia. Beltzak Errugbi taldea, Alboka abesbatza eta Solaskide** programako kideei omenaldia Manuel Lekuona Kultur-etxean.

**16:30-19:00**
**Haur parkea. Irrien Lagunak haur parkea** Isla Plazan.

**18:00**
**Sardina-jatea.** Aterpeak antolaturik Sardina-jate herrikoia Okendo plazan.

**19:00**
**Kale antzerkia. Trapu Zaharrak** taldeak **"Gezurtiak"** antzezlana aurketuko dute herriko kaleetan barrena.

**20:00**
**Musika. Son Kandela** taldeak lantindar musikaz gozaraziko digu Okendo plazan.

**22:00**
**Bertso-Saioa** Manuel Lekuona Kulturetxean. **Bertsolariak:**
Maialen Lujanbio
Andoni Egaña
Beñat Gaztelumendi
Patxi Etxeberria
Asier Azpiroz
Ane Labaka
**Gai-jartzailea:** Unai Muñoa

**23:00**
**Dantzaldia. Tsunami** orkestraren eskutik dantzaldia Isla plazan.

**24:00**
**Kontzertua. Anaia Arrebak.** Talde berritzaile bat ikusteko aukera, Twist Punka. Okendo plazan.

**01:00**
**Batukada. Zo-Zongo!**-ren Kolpez Blai emanaldia.Perkusioaren intentsitatea biziarazikoko digute, show ezberdin eta dibertigarri honekin. Okendo plazatik abiatuz herrian zehar mugituko dira.

**02:00**
**Kontzertua. Blues Thorpes** taldea. Hemen daude mitikoak, betikoak. Soula, rythm-bluesa eta rock&rolla beraien erara eta parodiaz eta gag-ez beterik. Banda honetaz gozatzeko aukera ezin hobea Okendo plazan. Ez zarete ikusi izanaz damutuko.




Pablo Mutiozabal 2 • Tel.: 943 369508
LASARTE-ORIA

FESTETAN
• Pintxo beroetan aukera zabala
• Bokata bereziak
• Razioak
• Sandwichak
• ....

Batido naturalak
Koktelak

D.O. Ardoak

Kafe bereziak

Irlandesa
Eskozesa
Kaputxinoa
Bonboia

Tostadak
Kruasanak plantxan
Txokolatea txurroekin
.............

**03:30**
**DJ-a. DJ Bull** Okendo plazan. Gau-giroa mantentzeko.

## Igandea 30

**06:30**
**Kalejira. Pasaia Txaranga-k** goiztiarrenei lagunduko diete Atsobakarren kokatua dagoen zezentokiraino.

**07:00**
**Xexenak.** Saka ganadu-etxearen xexenak. Atsobakar auzoan kokatua dagoen zezentokian.

**07:30**
**Txokolatada Mundiala.** Eguna hasi edo bukatzeko txokolate eta bizkotxoen banaketa. Atsobakar auzoan kokatua dagoen zezentokian.

**08:30**
**Diana Pasaia Txaranga**-ren eskutik.

**10:00**
**Bolo eta Toka.** "San Pedro jaiak" bolo eta toka txapelketa. Udal Kirol guneko bolatokian.

**10:30**
**Pilota finalak.** Benjamin, alebin eta infantilen XXI herriko txapelketa eta III. Beteranoen herriko txapelketa. Loidibarrengo frontoian.

**12:00**
**Kantu eta dantzajira.** Kantu eta dantzajira herriko kaleetan barrena.

**12:00**
**Haurren danborrada.** Haurren Danborrada Tradizionala, Oriako Txaranga lagun duela, herriko kaleetan barrena ibiliko da.

**13:00**
**Txalaparta. Hutsun taldea**ren emanaldia. Txalapartaren ibilbidearen historia, bere jatorritik gaur egunera arte, Okendo Plazan.

**17:00**
**Xexenak.** Haurrentzako xexenak, Saka Ganadu-etxearenak Atsobakar auzoan kokatutako zezentokian, Oriako Txaranga-k girotuta.





### Oharrak

**Aldez aurreko salmenta**, ekainaren 18tik aurrera, 18:00etatik 21:00etara bitartean, Manuel Lekuona Kultur-etxean:

| | | |
|---|---|---|
| Bertsolariak | Leihatilan | 4,60 euro |
| | Internet bidez | 4,32 euro |

### Gomendioak:

1.- Udalak beretzat erreserbatzen du programatutako ekitaldiren bat ezinbesteko kausengatik aldatzeko, kentzeko edo bertan behera uzteko eskubidea.
2.- Pertsona guztiei arren eskatzen zaie kasu egin diezaietela Udaleko enplegatuengandik edo agintaritzako agenteengandik jaso ditzaketen agindu partikularrei, eta, bestalde, ez ditzatela oztopa DYAren lanak, festetan interbenitu beharrean gertatuz gero.
3.- Parte hartu, ondo pasatu, baina kontuan izan besteenganako errespetua.
4.- Errespetatu kaleko altzariak, lorategiak, kaleplazak, etab., lasarteoriatar guztion eta zerorren onerako.
5.- Ez oztopatu ez garbiketako lanak, ez zerbitzu munizipalenak; kontuan izan zenbaitek lan egingo dutela, gainerakook festetan ondo pasa dezagun.
6.- Debekatuta dago petardoak, suziriak edo antzekoak saltzea.
7.- Gogorarazten da debekatuta dagoela 18 urtetik beherakoei alkohola saltzea.
8.- Edaten baduzu, ez ezazu gidatu.

**18:00**
**Erraldoiak eta Buruhandiak.** Oriako Txaranga-k lagunduta, Erraldoi eta Buruhandiak ibiliko dira herriko kaleetan barrena.

**18:00**
**Dastaketa eta Erromeria.** Sagardo-dastatze herrikoia eta erromeria Okendo plazan. Ttakun Kultur elkarteak antolatuta.

**19:00**
**Kale antzerkia. "Ellas bailan solas"** umorezko lana **Pikor** antzerki taldea, Elizatze plazan.

**20:00**
**Bollywood. Raat Ki Rani** taldearen eskutik **Bollywood**-a. India iritsi da Lasarte-Oriara. Dantza, ipuinak eta Bollywood dantza tailerra inzago dira. Andatza plazan.

**23:00**
**Dantzaldia Azabache** taldearen eskutik Isla Plazan.

**23:00**
**Kontzertua. Boston Jai** taldearen doinu alaiekin gaupasa egiteko aukera, Okendo plazan. Ordu txikiak arte festaz gozatzeko dator boskotea. Ttakun Kultur elkarteak antolatuta.

## Astelehena 1

**11:00-13:30**
**Haur parkea.** Andatza plazan.

**11:00-13:30**
**Jokuak. Mas Madera**, herriko hainbat gaztek, egur birziklatuaz eginiko jokuak. Okendo plazan.

**12:00**
**Erraldoiak eta Buruhandiak.** Txarangak lagundurik, Erraldoi eta Buruhandiak ibiliko dira herriko kaleetan barrena.

**16:30-19:00**
**Haur parkea.** Andatza plazan.

**16:00-18:00**
**Haurrentzako herri jolasak.** Ostadar SKT-ek antolatuta Kale Nagusian.

**17:00**
**Xexenak.** Haurrentzako xexenak, Saka Ganadu-etxearenak Atsobakar auzoan kokatutako zezentokian.

**18:00-20:00**
**Herri jolasak, gazte, heldu, koadrila eta familientzat** Kale Nagusian. Ostadar SKT-ek antolatuta.

**20:00**
Haur eta gaztetxoek ederki gozatzeko **apar-festa.** Elizatze plazan.

**20:00**
**Disko-festa.** ABIBA disko-festa Okendo plazan.

**23:00**
**Su-festa.** Su artifizialen bilduma bat botako du **Zaragozana** Piroteknia famatuak Atsobakarko parketik.

**23:00**
**Dantzaldia. Jamaica** Taldearen kontzertua Andatza Plazan. Festak amaitzeko ikuskizun ikaragarria

**23:00**
**Disko-festa. ABIBA** disko-festa Okendo plazan.

**00:00**
**Zezen-suzkoa.** Zezen Suzkoaren entzierroa Kale Nagusian barrena.

ARTIZAR TABERNA
BOKATAK
RAZIOAK
PINTXOAK
....
SAN PEDRO JAIAK 2013
FESTETAN ASKO DISFRUTATU !
Nagusia 12 atzekaldea • Lasarte-Oria
Tel.: 608 422247

SUGATE SUKALDEAK
OSO ONDO PASA! SAN PEDRO JAIAK 2013
• Gremioen koordinazioa
• Ordenadore bidezko diseinua
• Konpromisorik gabeko aurrekontuak
• Horma- armairuak
• Marka guztietako etxetresna elektrikoak
vegasa 12 · 7 GARANTIA WARRANTY · FORMA
Pintore Kalea 5 • Tel./Faxa: 943 361471
Lasarte-Oria
www.sugate.net

# Gaurtik aurrera sorgindutako jaiak

Sorgin eta aztiak prest daude, gaur arratsaldean Okendo plaza sorginduko dute eta. Aurten Sorgin Jaiek koadrilak eta blusak omenduko dituzte eta txosnako irudia Okendo plazako pilotalekua izango da. San Pedro Jaietan ohikoak diren koadrila jaitsiera, Bakailao txapelketa eta Oriako jaitsierari aurten beste ekintza batzuk gehituko zaizkie, hala nola, ginkana-poteo girotua edo truke azoka. Sorgin Guneko lagunek "gure ondorengoei mundua aurkitu dugun bezala uzteko asmoarekin" truke azokan parte hartzera animatzen dituzte herritarrak. Animatu eta gerturatu Sorgin Gunera!!!






## Osteguna 27

**18:00**
**Koadrilen jaitsiera,** Andatza plazatik Sorgin Jaien gunera.

**20:00**
Txupinazoa eta txozna irikiera.

**20:30**
Parrillada

**23:00**
Kontzertuak:

- Skakeitan
- Usain anaiak
- Pistoletak



## Ostirala 28

**14:00**
**Herrira elkarteko bazkaria.** Honetan, "Robin Food" izango da bazkari goxoa prestatzen. Sukaldatzen 13:00etan, hasiko dira.

**19:30**
**Kale ikuskizunak**. Mikro irekia, Kale nagusian

**21:00**
Zikiro jana

**24:00**
**Gozategi** talde mitikoaren kontzertua.

**Ondoren,**
Karaokea

I.Urruzola
aroztegia



Oria etorbidea 4, behea
(Errekatxo jatetxearen ondoan)
Tel.: 943 371200 / 610 413131
LASARTE-ORIA

SAN PEDRO JAIAK 2013
ASKO DISFRUTATU !

- Era guztietako arotz-lanak.
- Armairu barrenduak.
- Etxe barruko konponketak.
- Parket flotantea.

## Larunbata 29

**12:00**
Harrera herri gonbidatuei. Aurtengoan Lesaka eta Segurako gazteak izango dira.

**14:00**
Gazte bazkaria.

**Ondoren,**
"Bertso Saio Mundiala" izango da. Bertsolariak:
Alaia Martin
Beñat Gaztelumendi
Oier Aizpurua
Maddiane Txoperena

**17:30**
Ginkana Poteo girotua egingo da Dinbi Banda batukadaren laguntzaz.

**24:00**
Kontzertuak:

Anai Arrebak

Blues Thorpes

DJ Bull

Eta sorpresa…

## Igandea 30

**10:30**
III. Bakailao txapelketaren hasiera.

**12:00**
Bakailao txapelketaren amaiera.

**Jarraian,** sari banaketa

**12:30**
Bakailao pintxoak txakolinarekin.

**13:30**
Itsaski sortaren zozketa.

**16:00**
Oriako jeitsiera.

**Arratsaldean zehar,**
argazki proiekzioa.

**16:00**
Mus eta eskoba txapelketak

**18:00**
Truke azoka

**23:00**
Kontzertua. Boston Jai taldearen eskutik.







### Oharrak

- Azken egunean, igandean, burutuko den **argazki proiekzio**rako herritar guztiei dei egiten zaie beraien argazkiren bat (mugikorretik zein argazki kameratik ateratakoak) txosnan utz ditzaten, egunero egongo baita **aukera bertan argazkiak deskargatzeko!**
Proiekzioan jaietako protagonista guztiak ager daitezen nahi dute!

- **Gazte bazkarirako txartelak** ohiko tabernatan salgai egongo dira **15 euro**tan, kafea eta kopa barne. **150 lagunentzat lekua mugatua**.

- **Itsaski zozketa**: 13:30ean burutuko da. 12:00etan ikusgai egongo da otarra. **20:00etarako inor azaldu ezean ez da berriro burutuko.** Beraz adi egon zenbakiei!

- **Sorgin Jaiak ez da kargu egiten bertan gerta daitezken ezbeharrez.**

- Sorgin Gunean **ez dira eraso** SEXISTA, ARRAZISTA, HOMOBOFO eta FAXISTArik onartuko.

- Herritarrek Sorgin gunea **txukun mantentzea** eregutzen dute Sorgin Jaiek.








AINHOA TABERNA

Razioak

Pintxoak

…

SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

#SPJ2013

Kale Nagusia 46 • Tel.: 943 370885

Etorri dastatzera!

Pizzeria Bar Jatetxea
Rummy
OSO ONDO PASA!
SAN PEDRO JAIAK 2013
Eguneko menua
Pizzak
Hanburgesak
Pintxoak
Etxean egindako masak
Astebukaerako MENUAK erakargarriak prezio onean
Taldeentzako menuak
Kale Nagusia 71
20160 Lasarte-Oria • Tel.: 943 245565


Maite Erkizia
ILE-APAINDEGIA
ESTETIKA
OSO ONDO PASA FESTETAN !
Blas de Lezo 5, behea
Tel.: 943 370254
LASARTE-ORIA


GOXOKIS GOXUA
Eskerrik asko gugan jarritako konfidantzagatik
#SPJ2013
OSO ONDO PASA HERRIKO FESTETAN !
Geltoki Kalea 9 behea
Tel.: 637 462666

DEL ORIA KRISTALDEGIA
• Ispiluak
• Beira apaingarriak eta alakatuak
• Merkataritzakoinstalazioak
• Dutxako pantailak
• Kristaleria oro har
AUPA SAN PEDRO!
Uistin Kalea 11 (Zubieta plaza)
Tel./Faxa:943 362352
LASARTE-ORIA


ISU
JAI ALAIAK OPA DIZKIZUEGU !
• POLIURETANOA
• PVC
• ALUMINIOA
• ZUBI TERMIKOAREN HAUSDURA
• ATE-LEIHOAK
• PERTSIANAK
• TOLDOAK
• DEKORAZIOA
Kale Nagusia 46 • Tel.: 943 366495 • Faxa: 943 365222

COPILASARTE
#SPJ2013
DISFRUTATU SAN PEDROTAN!
- ESTANPAZIOAK
- AZALEZTATZEAK
- FAX-ZERBITZUA
- PLASTIFIKAZIOAK
- FOTOKOPIAK
Kale Nagusia 34 • Tel.: 943 366930
Faxa: 943 366931 • Lasarte-Oria

Larre
| Eguneko menua
| Asteburuetako menua
| Tradiziozko sukaldaritza
| Etxeko postreak
Larrekoetxe bidea 10 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 361012 / 943 360480
#SPJ2013
SAN PEDRO ONAK PASA!

BIZKER
IMPRESION DIGITAL
ONDO PASA SAN PEDROTAN!
• Inprimategi digitala
Txartelak, Fakturak, Albaranak, Zozketa-txartelak, Kartelak, Katalogoak etab.
• Formatu handiko kartelak eta Argazkiak
Standak, Erakusketa azokak, Ekitaldiak
• Kanpoko eta barruko errotulazioa
Furgonetak, Kamioiak, Toldoak, Saltokiak, Museoak...
Geltoki Kalea, 9 - Tel.: 943 36 20 61 - Lasarte-Oria

MANOLI
estankoa
#SPJ2013
SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU !
Geltoki 15 • Tel.: 943 362492 • LASARTE-ORIA

INFORMATIKA
MARTINEZ MULTIMEDIA
ONDO IGARO JAIETAN !
Ezagutu itzazu gure eskaintzak, beste inora jo aurretik!
#SPJ2013
Uzturre plaza 2, behea • Tel. /Faxa: 943 360591
LASARTE-ORIA

Asier Gozategi Musikaria

# “Gurea ez da adin batera mugatzen”

## Ekainaren 28an, San Pedro bezperako gauean joko du Gozategi taldeak Okendo plazan

***Duela 20 urte Ainhoa Gozategirekin hirukote gisa hasi zirenetik elkarrekin jarraitzen dute Asier Gozategi oriotarrak eta Iñigo Goikoetxea urdiaindarrak. 20 urtean taldeak eta bere musikak aldaketa asko ezagutu baditu ere, oraindik arrakasta daukate hasierako abestiek eta berriro joko dituzte San Pedro bezperan Okendo plazan. Gutxi gorabehera bi orduko emanaldian abesti guztiak beraienak izango dira. Asier Gozategik eman digu taldearen egoeraren berri.***

Jon ALTUNA IZA

Asier eta Ainhoa Gozategi anai-arrebek trikitixa eta panderoa jotzen zuten Orio inguruko auzoetan. Gero, Iñgo Goikoetxea baxu-jole urdiaindarrarekin elkartu, eta trikiti taldeen bide arrakastatsuaren partaide izan ziren.

Orduan baino lasaiago dabil Gozategi taldea orain; oholtza gainean jarraitzen du seikote bihurtuta: Imanol Goikoetxea Iñgoren anaiak jotzen du gitarra, David Gorospe zarauztarrak bateria, Joseba Aparicio eta Iñgo Prona oriotarrek tronpeta.

“Hasi ginenean ez zen horrelako talderik, trikitixa tradizionala baizik. Anai arrebak auzoko festetan, erromeriatan, afarietan, agurretan eta abar jotzen genuen. Gainera, Sakanan, Arbizun, soinu klaseak ematen nituen; han Urdiaingo Iñgo Goikoetxea baxu-jole nafarra ezagutu, erromeriak egiten hasi, 1994an maketa grabatu eta 1995ean aurreneko diskoa atera genuen geure musikarekin. Hirukote gisa hasi ginenetik elkarrekin jarraitzen dugu Iñgo eta biok” gogora ekarri du Asier Gozategik.

**Sei zarete taldean orain?**
Arrebak 2006an utzi zuen, bosgarren diskoa atera genuenean, nahikoa lan bazuen eta hiru seme-alabekin... David Gorospe bateria-jole zarauztarrak, Iñgo Goikoetxeak, honen anaia Imanol gitarra-joleak eta nik, laurok jarraitu genuen; orain dela hiru urtez geroztik, 2010etik, bi tronpeta sartu ditugu taldean eta sei gara. Indarra ematen dio taldeari.

“Bizi-bizirik” seigarren diskoaren grabaketarako erabili genituen tronpetak, ez genekien kontzertuetan erabiliko genituen, baina lehen kontzertutik gurekin daude bi tronpeta-jole oriotarrak. Eroso sentitu gara: Gozategik Gozategi izaten jarraitzen du, baina indar gehiagorekin.

**Alaitz eta Maider, Maixa eta Itziar... ezagunenak aipatzearren, erretiratzen joan dira. Zein da zuek irauteko sekretua?**
“Etzakit”-ekin batera, lau talde, eta denak lagunak ginen. Lehenengo diskoa atera genuenean “triki”-ak boom-a izan zuen. Ordura arte trikitixa bikoteak auzoetan jotzen zuten, zaharren kontua zela uste zen, baina talde onak ziren eta oso ondo funtzionatu zuten...

Dena den, bizitza ez da musika bakarrik. Batzuek luzaro jarraituko lukete honetan, baina bizimodua aurrera ateratzeko, honekin bakarrik ezin duzu.

Gure sekretua, momentuan momentuko erabakiak izan dira. Erromeria bakoitzera errespetuarekin joan gara, buruan hori argi edukita. Askok uste dute festarik festa ibiltzen garela, baina lanean ari gara.

Ikusten genituen beste talde batzuek, zoriontsuagoak zirela, joan, parrandan gelditu eta ondo pasatzen zutela, baina horrek bide laburra izan du. Uda bat edo bi pasa eta taldea desegiten zen. Lanari errespetuak lagundu digu guri 20 urtetan jarraitzeko.



20 urte ondoren, oholtzaren gainean jarraitzen du Asier Gozategik.

**“Gozategi 1992-2012 All Stars”, 20 urteko ibilbidearen bilduma plazaratu zenuten iaz...**
Gure buruari egindako omenaldia izan zen. Ohore bat da guretzat abestiak hainbeste entzutea, oraindik tabernatan jartzea eta jendeak ezagutzea. 13 eguneratu genituen. Kantuak aldatu dira, baina ez asko.

> “Bi ordutan, 20 urteko gure ibilbidearen laburpen bat egingo dugu: kantu berri eta zahar ezagunenen nahasketa”

Elkarrizketa oso osorik txintxarri.info webgunean

**Horrelako bizimoduak nekatu ere egingo du?**
Gu, gehiena, arrakasta handiena izan genuen urteetan nekatu ginen. Orain konturatzen gara, ez genuela egindako dena behar den bezala dastatu. Zenbat lekutan jo genuen! Harrituta geratzen gara: Argentinan izan ginen hiru aldiz, Uruguaien, Belgikan, Finlandian, Madrilen, Bartzelonan, Galizian, eta beste hainbat tokitan.

Urte gutxitan hainbat saio egin genituen. Dena den, guretzat erosoenak azken hiruzpalau urte hauek izan dira. Orain ari gara saio bakoitzean gozatzen.

Bestalde, lehen diskoa atera genuenean, 23 urte geneuzkan eta ingurukoak, musikari, teknikari eta beste, gu baino helduagoak ziren. Orain guk hor jarraitzen dugu, baina ingurukoak gazteagoak dira.

**Gogoz jotzen duzue oraindik?**
Gazteak inguruan izateak indarra ematen dizu.

**Gaztetua sentitzen al zara?**
20 urte egin ditugu, baina gu berdin sentitzen gara. Eskenatokian zaudenean berdina sentitzen duzu. Hasi ginenean lehen lerroetan 16 urtetik 20-25 urtera artekoak izaten ziren, eta orain ere adin horretakoak dira.

“Nire aita eta ama zuen abestiarekin ezagutu ziren” esaten digute batzuek. Istorio politak dira, baina, horrek zure tokian jartzen zaitu.

**Zer eskainiko duzue Okendoko emanaldian?**
Hasieran erromeriak luzeagoak ziren. Azken dozena erdi urtean, aldiz, bi orduko emanaldiak egiten ditugu: Gure ibilbidearen laburpen bat, kantarik ezagunenak; azken diskoetako kantu berrien eta zaharren nahasketa bat.





David Gorospe, Imanol eta Iñgo Goikoetxea, Asier Gozategi, Joseba Aparicio eta Iñgo Perona, Gozategiko partaideak.

> “Harro gaude gure musika aiton-amonek eta bilobek elkarrekin entzun dezaketelako. Gurea ez da adin batetara mugatzen”

**Jotzen dituzuen abesti denak al dira zuenak?**
Hirukote gisa hasi ginenean bertsioak egiten genituen eta oso gustura gainera. Gaur egun ere joko nituzke abesti ezagunak, hori ez da maila gutxiago izatea, ezta pentsatu ere.

Fran Iturbe gure lehen hiru diskoen ekoizle bergararrak esaten zigun gure abestiekin egin behar genuela erromeria osoa; hori garai hartan pentsaezina zen, baina gerora lortu dugu eta harro gaude. Hasieran emanaldia osatzeko besteen abestiak jotzen genituen, eta, orain, jada, gure abestietako batzuk kanpoan utzi behar ditugu.

**Aspaldian jo al duzue hemen?**
20 bat urte pasa dira azken aldiz jo genuenetik, txosnak Hipodromo kalean jartzen zirenean. Hirukotea ginela, uste dut, Zabaletan izan ginela.

**Gaztetxoekin batera, helduak ere joaten al dira erromeriara?**
Belaunaldi ezberdinak elkartzen dira toki askotan. Duela gutxi, Oñatiko gaztelekuan bukatu genuenean ia 80 urteko dozena erdi aiton-amona ziren “lotsa” ematen ziela esanaz. Lotsa? Bai, zera. Hori oso polita da. Adin horietako jendea Gaztelekuan!... Gu beti harro sentitu izan gara gure musika entzuten mahai berean aiton-amonak bilobekin elkartu daitezkeelako. Gurea ez da adin jakin batetara mugatzen.

**Musikatik bizi al daiteke?**
Arrakasta daukazunean, epe labur batean, bai. Hala ere, zuzeneko saioekin soilik ez, gero, aparte, klaseak eman edo beste eginez osatu behar duzu.

**Klaserik ematen al duzu?**
Utzi nion. Arreba eta biok ostatua ireki genuen Orion.

Ezin da jakin, bost, hamar edo hogei urtera eskenatokian egongo zaren edota horretarako indarrik izango duzun.















Txirrindularitza txapelketa izaten zen San Pedro Jaietan. Michelinek antolatu zuen urte batzuetan. TOMAS FERNANDEZ



T. FERNANDEZ

Batelen txapelketa egiten zen Oria ibaian, Kontxarako prestaketa izaten zen.

# Aitzinako San Pedro jaiak

## San Pedro jaietan ekimen ugari izan ohi da, baina ez dira beti gaur egungoak bezalakoak izan

***Lasarte-Oriako San Pedro jaiak garaian garai ekitaldi desberdinak izan dituzte. Ikerketa lan txikia egin dugu, Lasarte-Oriako Udalak argitaraturako hainbat liburu, "Lasarte-Oria aldizkarian" hainbat herritarrek idatzitako artikuluak eta Lasarte-Oriako El Diario-ko berriemaile izandako Jexux Mari Egizabalen laguntzarekin eta 20ko eta 70ko hamarkaden artean Lasarte-Orian jaietan izandako ekintza edo bitxikeriak aurkeztuko dizkizuegu.***



Danborrada 1947an sortu zen eta haurrena urte batzuk geroago. T. FERNANDEZ



Lasarte-Orian zegoen errondailak kaleak girotzen zituen. T. FERNANDEZ

Nerea EIZAGIRRE

Lasarte-Oria herri gaztea da, baina historia luzekoa. Mendeak dira gure herrian San Pedro jaiak ospatzen direla, hainbat ekintza mantendu dira, meza, pilota partidak, herri-kirolak baina badira beste batzuk herritar batzuen oroitzapenean bakarrik edo liburuetan mantentzen direnak. Horregatik, San Pedro jaietan gure arbasoek zer egiten zuten jakin nahi izan dugu.

Atzera begirada honetan, lehen geldialdia, 1920ko hamarkadakoa da.

Oria auzoko bizitzari buruzko aurkitutako artikulu edo aipamenak. Hain zuzen ere, Oria auzoko Unión Recreativa tadeak 1920k antolatutako egitaraua aurkitu dugu.

Jaiei hasiera emateko suziriak, bonbak eta danborileroak zeuden. Plazan bandak eta akordeoi joleek dantzaldia girotzen zuten.

Eta kirol zaleek hainbat ekintzaz gozatzeko aukera zuten.

Esate baterako, gaur egungo Kross herrikoiaren aitzindarietako bat aurki dezakegu, 6 kilometrotako "Cross country" proba, baita atletismo txapelketa bat ere. Honetan 100 m. lasterketa, 500 m. hesi-lasterketa eta 2.500 metroko lasterketa egiten zituzten.

Haurrek ere ederki gozatzeko ekintzak zituzten, hala nola, jokoak, zaku-lasterketa, zintak hartzea edo umeentzako lasterketa.

Honetaz gain, Brunet familiak zuen garrantzia ere nabari da hainbat irakurketetan.

Adibidez, piragua txapelketa egiten zen Oria ibaian eta piraguak Brunet familiak utzitakoak ziren.

Garai bereko aipuetan ere, Lasarte-ko eremuan San Pedro egunean txistulariak eta dultzaineroekin kale-jira egiten zela jasotzen da.

Meza nagusia izaten zen parrokian eta Hernani eta Urnietako udal zein eliza-ordezkariak etortzen ziren.

Hau amaitzean herri kirolak, aizkolariak, harri-jasotzaileak, pilota partidak... denetarik egoten zen egun berezi horretan, baita futbol txapelketa edo gazte eta helduentzako mendi ibilbide neurtua ere.

**Apaizak hainbat urteetan "agarrao" dantzak jotzea debekatu zuen dantzaldietan. Arin-arina, fandangoa eta kalejira besterik ez zituen onartzen**

Deigarria da nola aipatzen den, hamarkada honetan elizak hainbat urteetan "agarrao" dantzatzea debekatu izana. Orduan botere handia zuen apaizak eta arin-arin, fandango eta kalejira besterik ez zituen onartzen.

### 40ko eta 50eko hamarkadak

Gerraren ostekoak dira festei buruz aurkitutako hurrengo aipamenak.

Hauetan, 40ko eta 50ko hamarkadetan, koadrilek eta herritarrek jaiak alaitzen ziztuztela nabarmentzen da.

Koadrilek ez zuten diru askorik izaten eta, hala ere, momentuan antolatzen zituzten herritarrei barre eragiteko muntaiak edo txiste lehiaketak.

"Gure Etxea"-ko Manuel Sagardia herritarrak ere hainbat ekintza antolatzen zituen asmo berarekin.

Hamarkada honetan hasi ziren lehen orkestinak. Baina ez zen hori musikarekin lortuta zegoen ekintza bakarra Aurelio Castroren errondaila, gramola, Hernaniko banda, txistulariak, akordeoi joleak, dantzariak... denetarik egoten zen.

Eta, noski, 1947an, Danborrada sortu zuen Jose Antonio Muguruzak.

Honetaz gain, kirol ekintza ugari ere mantendu zen, hala nola, pilota, txirrindulari txapelketa... Eta berriak ere gehitu ziren, boxeoa.

### 60ko eta 70eko hamarkadak

Ibilbidean, 1960ko hamarkadako jaietara iritsi gara. Hauek, Jexux Mari Egizabalen laguntzarekin errepasatu ditugu.

"Orduan, estropadak izaten ziren Oria ibaian. Batelekin egiten zen lehia. Jende asko etortzen zen hauek ikustera," dio Jexux Marik.

San Pedro, Orio, Getaria eta horrelako taldeak etortzen ziren eta "herritarren artean ere talde bat egin zen."

"Bi norantzetan egiten zuten arraun, bat Oria aldera eta bestea Usurbil aldera, batek Txikierdin ematen zuen buelta eta besteak zubian."



Boxeo borrokak eta erakustaldiak ere izaten ziren San Pedro Jaietan. T. FERNANDEZ

Segalariak ere egoten zirela gogoan du, "kale-jira egiten zen Zumaburu auzoraino. Orain etxebizitzak daude baina orduan irla zen eta belazea zegoen, hor egiten zen proba. Honetara ere jende asko etortzen zen."

Txirrindulari txapelketa ere aipatu du, baita Manolo San Jose herritarra ere. "Txirringa gainean zuen trebetasuna erakusten zuen. Eskuleku gabe edo eser leku gabe ibiltzen zen batzuetan, hiru txirringaren gainean besteetan."



Manuel Sagardiak hainbat ekitaldi antolatzen zituen jendea animatzeko. Argazkian, oilarren arteko borroka. T. FERNANDEZ

Eta Soka-muturra ere izaten zela aipatu digu.

Hau guztiaz gain, "dantzariak ere egoten ziren eta musika oso garrantzitsua izaten zen".

Hernani edo Bergarako musika banda etortzen ziren San Pedro egunean eta meza ondoren eskaintzen zuten haien kontzertua.

Jazban edo orkestinak ere izaten ziren arratsalde eta gauetan eta dantzaldia egoten zela gogoratzen du Jexux Marik.

"Beotibar orkestina, oso famatua eta garrantzitsua, etorri zen behin baino gehiagotan. Diego Bikondoa ere etortzen zen eta herriko Manolo, ez dut bere abizena gogoratzen eta beste musikari batzuekin jotzen zuten," aipatu digu.

Giro ederra izaten zela adierazi dio eta Añorga, Andoain, Hernani eta Donostiatik, batez ere, Antigua auzotik jende asko etortzen zela azpimarratzen du.

"Autobus bereziak izaten ziren gauetan dantzaldia bukatzerakoan eta beteak joaten ziren."

Era berean, Mikel Ormazabalek idatzitako artikulotxo batean, Katalunia eta Gipuzkoako selekzioen arteko errugby partida bat ere izan zela aurkitu dugu.

70ko hamarkadan, berriz, artikulu beraren arabera, txupina botatzen hasi ziren eta bonba japoniarrak ere izaten ziren haurrentzat.

Baina ekintza hauetaz gain, aipagarriak dira beste ekintza hauek: hondar gazteluen lehiaketa eta margo lehiaketa izan zen Michelinen, minoret taldea izan zen jaietako erreginaren desfilean eta hiru gurpileko autoen lasterketa egiten zen "Oriako zirkuituan" zenean.

### Beste gertakariak

Baina jaietaz aparte, beste gertakari garrantzitsuak ere gertatu izan dira San Pedro jaietan edo aurreko egunetan.

1948an, ekainaren 27an, Michelinek egindako frontoia inauguratu zen.

1960ko ekainaren 30ean, esate baterako, Okendo plaza inauguratu zen.

Ekitaldi honetan Hernaniko Schola Cantorum eta Musika taldearen emanaldia izan zen.

Eta 1968an San Pedro jaiak hasi baino lehen, herriarentzat garrantzitsua zen Golf-a itxi zuten.

Beraz, irakurri bezala, Lasarte-Oriako festen barruan hamaika ekintza burutu dira. Akaso hauetako batzuk berreskuratu ahalko lirateke hurrengo San Pedro jaietan.







Joxe Mari San Jose “Conquistador del fin del Mundo” saioko finalista

# “Ez nuke bizitako ezertxo ere aldatuko, baina ez noa berriro”

## Guztira 40 egun egin ditu Patagonian, ETBren reality arrakastatsuan parte-hartzen

***Joxe Mari San Jose 50 urteko lasarteoriatarra mekanikaria da ofizioz, baina abenturazalea afizioz. Gaur egun famatua ere bada, Euskal Herriko txoko guztietan omen dakite haren izena, aurreko urteko udazkenean Patagoniara abiatu eta 40 egunez “Conquistador del Fin del Mundo” saioan lehiatu zenetik. Piedra Paradako lehorte eta hautsarekin, Andeetako elur eta haizeekin eta Amazoniako Iguazuko hezetasunarekin topo egin du bidean. Hiru herrialde ezagutu ditu, Argentina, Brasil eta Paraguai, baina batez ere gosea eta beharrak sortzen duen laguntasuna topatu ditu paraje haietan. Abentura amaituta ere, unifikazioko kideekin harremana mantentzen duela kontatu digu: “Horrek ez dauka preziorik!”***



Joxe Mari San Jose herritarra bere semearengatik sartu zen abenturan, eta ez dio hutsik egin.

Jon Altuna Egitegi

Gustura bizi da Zabaleta auzoan Joxe Mari San Jose. Giro euskalduna, herri-festak eta naturarekin duen kontaktua maite ditu batez ere, gainera haurrek jolas dezaten leku ederra delakoan dago.

Urrian ordea, herriko eguneroko bizitza eta mekanikari lanak alde batera utzi eta Patagoniara abiatu zen: “Denetarik egin dugu han, baina batez ere egoera txarretan konbibentzia ona eraman daitekeela erakutsi dugu”.

**Noiztik datorkizu abenturarako grina?**

Txikitatik abentura zalea naiz, kamamila, gaztaina eta perretxiko bila ibiltzen ginen gaztetxotan. Betidanik mendia asko gustatu izan zait, basurdetara joaten ginen gauean, tranpak jartzen genituen...

Ehiztari amorratua ere banaiz, arrantzalea eta akanpada zalea. Naturak ematen duenaz gozatzea gustatzen zait, baratza eta jardina dauzkat, lau letxuga eta sei tomate landare, besterik ez. Kirola ere asko egin izan dut, bizikleta, eskia... Eta txikitan eskupilota, pala... Beti kalean ibiltzen ginen.

**Betidanik bizi izan zara herrian?**

Ostatu aldameneko etxean jaioa naiz, Villa Rosarion. Gure aitonak egindako etxea da. Eraikitakoan, pisu bana seme-alaba bakoitzari eman zigun eta han urtetan bizi izan naiz. Gero Juan XXIII plazara joan ginen eta orain Zabaletan nago.

**Nork animatuta ausartu zinen “Conquistador del fin del Mundo”-n izena ematera?**

Aukera polita zela ikusten nuen, batez ere nere semearentzat. Bere aita egunkaria hartu eta sofan esertzen ez den horietakoa dela ikustea nahi nuen.

Gainera, bederatzi urteko seme zaharrena gizakia nondik datorren eta antzinako munduko gauzak ikasten ari zen batean sua nondik zetorren ba ote zekien galdetu nion eta haren erantzunak zur eta lur utzi ninduen, “metxerotik!” esan ez zidan ba!

> **“Sua egin, arrantzatu, ura ekarri, bazkaria prestatu, egurra moztu, akanpatu... Gaztetan bezalaxe ibili naiz. Nik disfrutatu dudana ez dago deskribatzerik!”**

Egun hartatik aurrera, semeari eta ilobei sua era natural batean egiteko modua irakasten hasi nintzaien eta antzinan bezala oraindik ere bizi daitekeela erakutsi nahi nien, Internet, Whatsapp eta halakorik gabe.

**Zure kasting-a famatu egin da, errusieraz kantatu eta Miramonen bertan sua egin zenuen...**

Kastingean zuk dakizun zerbait egiteko eskatzen dizute, txisteak kontatu, tontoarena egin... Pertsonalitatea azaltzeko aukera ematen dizute eta nire arma, suarena zen.

“Sua egiten dakit, hemen dakartzat makilak”, esan nien eta ea zenbat denbora behar ote nuen galdetu zidaten. Bi minutu eskasean egin nien sua. Jakina, berehala deitu zidaten Patagoniara joateko.

**“Kakalin” abestia modan jarri duzu!**

Hori arrakasta. Udako abestia izango dela esaten dit jendeak. Kasting-ean bertan galdetu nien ea euskaraz, inglesez, gazteleraz edo errusieraz kantatzea nahi zuten... Eta errusieraz kantatzeko eskatu zidaten. Emazteak irakatsitako hiruzpalau abesti errusiar dakizkit, ez gehiago.

**Benetan da hain gogorra abentura, edo “reality”-aren parte da?**

Pentsa. 13-14 kilo galdu nituen. Oso esperientzia gogorra izan da. Konbibentzia ere halako baldintzetan ez da erraza, ekipoan zazpi ginen eta oso ondo moldatu gara





Geltoki kalea 21• Tel.: 943 362467 Faxa: 943 372794 • Lasarte-Oria
E-maila: muebleszubi@hotmail.com

elkarrekin. Aldarte igualtsuak genituen eta elkarri laguntzen genion beti. Jendea animoz baxu ikusten nuenean animatzen saiatzen nintzen.

**Zer egin zitzaizun gogorrena 40 egun horietan?**
Baraurik egotea da gogorrena. Gose ikaragarriak pasa ditugu, trasladoetan te bat edo sagar erdi bat jaten genuen, ez besterik.

Hotza baino gehiago haizea izan da sekulakoa. Ekipoa oso ondo portatu da gurekin, arropa ona geneukan, zakua ere beroa... Barruan sartuta eta euririk egiten ez bazuen tamainan.

Proba asko irabazi genituenez, kanpamendu aberatsean izugarri ondo egoten ginen eta kanpamendu txirora joatea egokitu zitzaigunean zortea eduki genuen eguraldiarekin. Patagonian eguna luze egiten da!

**Nolako parajeak dira Patagonia aldekoak?**
Zoragarriak, eta batez ere desberdinak. Izarrak ere bestelakoak dira, hego-hemisferioko konstelazioak daude han eta asko ikusten dira gauetan. Lainoek ere asko harritu naute, oso itxura arraroak hartzen dituzte.

**Harremanik egiten al da produkzioko langileekin?**
Kamerekin inongo kontakturik ez dugu izaten. Ez genekien zer ordu zen, ez ziguten esaten eta saiatuz gero, berehala mozten zintuzten.

**Familiak majo sufrituko zuela pentsatzen dut zu kanpoan zeunden bitartean...**
Familiak asko sufritu du, bai. Baina abenturan segituan baztertzen nituen pentsamendu txarrak. Berehala hasten nintzen paseatzen, kabi bila, arrantzan... Umeez gauero gogoratzen nintzen. "Biharrarte, ondoloin! Mark, etxeko lanak egin! Iker allollitos!", esaten nien.

**Ausarta bazarela behintzat argi geratu da. Erleei alergia eduki eta erlauntza batetik eztia ateratzen saiatu zinen... Arantza batekin belarritakoa ere egin zenuen!**
Oso aktiboa naiz, bizia, beti gauzak egiten aritzen naiz. Beti bilatzen dut lan edo aitzakiaren bat etxean ez egoteko. Andreak beti esaten dit ipurdian motorra dudala dirudiela, baina etxeak lotu egiten nau.

Erlauntzari dagokionez, gosea dela eta ez duzu pentsatzen. Bakoitzak gure jana genuen. Lau maspasa eta bi intxaur pusketa egun guztirako, pentsa.

Niri iluntzean jatea gustatzen zitzaidan, ur trago bat eman eta beteta zeudenaren sentsazioarekin lokartzeko. Bestela ezin nuen lorik egin!

**Hain baldintza gogorretan bizita, ez al duzue tranpa egiteko tentaziorik eduki?**
Tentazioa egon badago, jakina! Baina gauza asko irabaziak nituen, arrantzan egin nuen, sua ere bai, tranpetan hasi eta nire izena zikintzeko.

***"Bizitza honetan beti izan behar da ilusio bat. Ohera sartu eta jeikitzerakoan zeure buruari galdetzeko: gaur zer egingo nuke gustora?"***

Egia esan, errekisa bat egin ziguten eta mermelada latak agertu ziren gure taldean. Andeetatik Iguazurako trasladoan, aireportuan, bapo jarri ginen.

Baina jendeak latak eta janaria abenturara eraman zuen, gordean. Taldeak tranpa egin zuen, baina nik ez. Pena da, denon izena zikindu zelako, baina nik ez neraman ezertxo ere. Julian Iantzik momentu batean esan zuen ni nintzela tranpa egin ez zuen bakarra, baina hori ez da telebistan atera.

**Zein lehiaketa planteamendurekin joan zinen?**
Aurrena ez ateratzeko asmo garbia nuen. Abentura lehen lekuan uztea erridikuluan geratzea izango zela pentsatzen nuen.

Gerora pausoz pauso joan naiz. Helburuak egunean markatzen nituen. Hasieran sei azkenetan ez geratzea, gero erdialdera arte irautea, unifikazioagatik borroka egitea... Azkenean finalera iritsi nintzen.

**Pena da, finalean kanoa gabe geratu zinen...**
Finalaren eguna iristerako oso erlaxatuta nengoen. Nire buruari jarritako helburuak ederki beteak nituen eta jendeak errespetatu eta maitatu egiten ninduen. Semeari erakutsi beharrekoa ere erakutsi nion...

Azken hamar egunetan, probak irabazten zituena zuzenean sailkatzen zen finalera eta galtzen zutenek dueloa zeukaten. Azken astea duelo horietan pasa nuen eta gogorra egin zitzaidan, gastatu eta gastatu aritu nintzelako. Azkenerako, indarrik gabe nengoen.

**Anekdotaren bat kontatzerik bai?**
Finalaren egunaren bezperan bazkari handia eman ziguten... Eta ni tripako minarekin hasi nintzen kaka goitik eta behetik botatzen. Iguazuko parke naturalean ezin da sartu, ezin da igerian egin, oso jende gutxik eskalatu du Oscarrek igotako pareta, bospaseik, baina ziur inork ez duela ibai ertzean kakarik egin! Neu lehenengoa!

**Aldatuko zenuke abenturan bizitako ezer?**
Ez nuke ezer aldatuko, baina ez nintzateke berriro ere joango. Momentuz ez, hori bukatu da eta ez litzateke berdina izango.

Bizitako guztiarekin geratzen naiz, abentura ederra izan da.

**Aurrera begirako proiekturik?**
Lasarte-Oriatik nire andrearen herrira bizikletaz joateko asmoa daukat, Errusia sortaldera.

Euskal Herria eta Nahodka artean ia 15.000km daude, Japongo itsasoko kostaraino joan beharko nuke Europa guztia zeharkatuta, Frantzia, Alemania, Polonia... Europako herrialdeetan barrena 4.000km egin beharko nituzke Moskura iristeko, gero 10.000km Vladivostokera eta azkenik beste 500-800km nire emaztearen herrira.

Jakina, gustatuko litzaidake emaztea eta semea nirekin etortzea. Furgoneta bat prestatu eta haiek nire atzetik jarraitzea izango litzateke politena. Eskolak semeari nik emango nizkioke edo internetetik bestela.

Egunero bizikletaz 50-60km. eginda, nire kabuz bizi nahi dut. Europa alde hartan perretxiko pila bat dago, ehizan egingo nuke, arrantzan... Gero, liburu bat egiteko asmoa dut, notak hartu eta argazkiak aterako ditut.

Emazteak frenatzen nau. Hark esan zidan edo "Conquis" edo 15.000km-ak. Eta Patagoniara joatea erabaki nuen. Ea konbentzitzea lortzen dudan... Orain baita garaia, 50 urterekin, bestela hemendik hamar urtera jakin ezazu non eta nola egongo naizen. Gazte jende askok esaten dit: "Joxe, nik handitan zu bezalakoa izan nahi dut!". Eta horrek poztu egiten zaitu. Hori bai, urtebete pasata ez da inor akordatuko nitaz!

Ile-apaindegi mistoa Lucia



SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU !
SAN PEDRO JAIAK 2013
Kale Nagusia 67
Tel.: 943 371908
LASARTE-ORIA

SAN PEDRO JAIAK 2013
FISIOTERAPIA ZENTROA
Ibaiondo
Fisioterapia Errehabilitazioa
Masajeak Osteopatia




JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU !
Ola Kalea, 12 - behea. ezk - LASARTE-ORIA
Tel. / Faxa: 943 370 306 - fisioibaiondo@gmail.com

Difrenauto
#SPJ2013
Tel.: 943 37 01 49
Fax: 943 36 66 59
taller@difrenauto.com
www.difrenauto.com
Herriko jai zoriontsuak igarotzea espero dugu !
Oria Etorbidea 8 - 10 pab. 15
20160 LASARTE-ORIA (Gipuzkoa)
EUROMASTER


Erabateko gutizia aurkituko duzue
gure produktuetan!
Bila bazabiltza, hementxe duzu
gure BETIKO kafea
BETIKO
Kafea
OSO ONDO PASA HERRIKO JAIETAN !
#SPJ2013
OGI BERRI
GURE
KALITATEA
DASTATU
Pablo Mutiozabal 3 • Tel.: 943 364121 • 20160 LASARTE-ORIA


Oso ondo pasa
San Pedro jaietan!
Asteko menu berezia
ikusteko:
www.goiegi.com
GOIEGI
Jatetxea - Restaurante
Irubide bailara 1 · 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
T. 943 36 14 04 / 943 37 11 78

# San Joan suaren magia

## Suak uxatu zituen lasarteoriatarron oroitzapen txarrak berriei ongietorria emanez

***Okendo plaza bete zuten herritarrek San Joan suaren inguruan. Ohiko soka-dantza egin zuten Erketzeko dantzariek eta hauekin batera hainbat udal ordezkari aritu ziren dantzan. Alkateak sua piztearekin batera festak eztanda egin zuen. Honen inguruan kalejira, arin-arina eta fandangoa dantzatu zituzten besteak beste.***



Okendo plaza goraino bete zuten herritarrek San Joan sua ikusteko.

Jon ALTUNA EGITEGI

Gau magikoa omen da San Joan bezperako gaua, oroitzapen txarrak erraustu eta horiek ahaztu eta desira berriei ongietorria emateko gaua hain zuzen.

Horretarako, Euskal Herriko bazter guztietan bezala, Lasarte-Orian ere ohitura den legez San Joan Sua piztu zuten.

Hirugarren urtez egin zuten sua haur, gazte, heldu eta adineko jendez gainezka zegoen Okendo plazan.

Gaztetxoenak euren ikasturteko apunte eta notak sutara botatzen ikusi genituen, hurrengo urterako desirak sugarrek nola erretzen zituzten begira-begira geratzen ziren bitartean.

### Udal ordezkariak dantzan

Aurretik ordea, 36 dantzari aritu ziren soka-dantzan, tartean sei udal ordezkari zeudela. Pablo Barrio, Taxio Arrizabalaga, Estitxu Alkorta, Ana Isabel Prieto, Boris Nogales eta Nerea Sanchez zinegotziak dantzan aritu ziren.

Aurtengoan ere, Erketz EDT-koek ez zuten egun honetan hutsik egin eta euren aletxoa jarri nahi izan zuten San Joan bezperako sua girotzeko bai txistularien doinuez baita dantzarien abileziaz ere.

Udal korporatibako beste kide batzuk ere izan ziren Okendo plazako ikuskizunaz gozatzen. Horrela Juan Jose Castro LOHP-ko zinegotzia eta PSE-EE-ko Nerea Artamendi, Lourdes Acevedo eta Txus Alonso dantzarien lana ikusi eta txalotzen aritu ziren.

Behin alkateak zuzi batekin San Joan sua piztuta, suaren inguruan kalejira, fandangoa eta arin-arina dantzatu zituzten.

Okendon suak bere magia egin zuen eta herritar piloak ohitura honi jarraiki ez zuten hau galdu nahi izan. Eta San Joan egunean herriko hainbat ataritan, lizarra jarrita ikusi ahal izan zen ohitura zaharrei eutsiz.



# Jaiak iritsi bitartean...

## Aurreko astean hasita, hainbat ekintza izan dira San Pedro jaien aurrekari





Ikurriñaren aldeko ekimena burutu zen larunbatean Okendo plazan.




Biyak Batekoek aerobic eta soinketa erakustaldia egin zuten, Zentro Zibikoko emakumeek protesta.



Erketzekoek San Pedro jaien bezperatan ikasturte amaierako emanaldia eskaini zuten.

SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU !
IRIGOYEN OPTIKA
SAN PEDRO JAIAK 2013
Largoenea 1 , Tel.: 943 371047
Lasarte-Oria



serigrafiaiosu.com
Kamiseten inprimaketa
Txiskeroak
Industri nahiz iragarki serigrafia
Binilozko pegatinak
Boligrafoak, etb...
943 37 19 54

iturgintza Lizaso
OSO ONDO PASA FESTETAN !#SPJ2013
Iturgintza
Gasa
Berokuntza
Teilatuak
Pintore Kalea 7 behea
Tel.: 943 369328
635 751860
652 774677
administracion@fontanerializaso.com

Oso ondo pasa San Pedrotan !
AUTOESKOLA IZARRA AUTOESCUELA
www.autoescuelaizarra.com
AZTERKETA TESTA
Euskeraz/Gastelaniaz
MATRIKULA 10%
Bideo argigarriak eta intensibo testak On-line
Etxean edo Autoeskolan PRESTATU ZAITEZ!
Geltoki Kalea, 11 - behea (Lasarte) Tel.: 943377005



Alboka abesbatzak bere 25. urteurrenean kontzertu berezia eskaini zuen San Pedro elizan.



Igerilekuan ederki pasa zuten haurrek asteartean egindako Ur Festa erraldoian.



Mosso Oroimenezkoan areto futbolean herriko ligako irabazlea izan den Txindoki taberna nagusitu zen.



Pote, toka, igel txapelketa egin zuten jubilatuek Isla plazan asteartean.












## Zorion agurrak



**Kontxi eta Oscar**
Zorionak "bollito"! Poliki poliki ospatuko dugu elkarrekin.



**Ekain**
Zorionak maittia zure 3. urtebetezean. Oso ondo pasa. 3 muxu handi familiaren partetik.



**Nahikari**
Zorionak sorgintxo, zure 3.urtebetetzean! Aitatxo, amatxo eta famili guztiaren partetik! Muxu potolo



**Olatz**
Zorionak zure seigarren urtebetetzean famili guztiaren partetik. Muxu pila bat.



**Saioa**
Zorionak etxeko printzesari. 9 muxu pottolo Aitatxo, Amatxo eta Eneko.



**Irati**
Zorionak printzesa, 8 muxu eta ondo pasa. Ama eta familiaren partetik.



**Amane**
Zorionak gure eskalatzaileari familiaren partetik!!!

# Herritarren txokoa

### Galdutako arropa

Sorgin dantzako entseguen ondoren, bertan ahaztutako hainbat jantzi jaso dira. Jabeak Ttakun kultur elkartera hurbildu behar dira hauek berreskuratzeko.

### Kiroldegiko ordutegia jaietan

San Pedro jaiak direla eta, Udal Kirol Zerbitzuak jakin arazten du honakoa izango dela egun hauetako ordutegia. Ekainak 28, ostirala, goizean 7:00etatik 12:30era irekia izango da; arratsaldean berriz itxita egongo da.

Era berean, larunbatean ekainak 29 eta igandean ekainak 30 kirol instalakuntzak itxita egongo dira.

### Udako ordutegia kiroldegian

Uztailaren 1etik abuztuaren amaiera arte, udako ordutegia egongo da kirol instalakuntzetan.

Honen arabera, astelehenetik ostiralera kiroldegia 07:00-13:00 eta 17:00-22:00 bitartean irekia izango da. Larunbatetan, 09:00etatik 13:00etara erabili ahalko dira instalakuntzak eta igandeetan itxita egongo da.

Michelingo kirol gunea, berriz, astelehenetik ostiralera 10:00-12:30 eta 17:00-21:00 ordu tarteetan erabili ahalko da. Larunbatetan goizez izango da irekia, 09:00-13:00 eta igandetan itxita.

### Tourreko porran

San Pedro egunean, ekainaren 29an, Korsikan 2013 urteko Tourra hasiko da eta honekin batera Ostadar SKT-ko antolatzen duen txirrindularitzako porra.

Antolatzaileek jakin arazi dutenez, boletoak ohiko tabernetan daude eta 7 euro balio dituzte.

Gogoratu Giro eta Tourreko onenak 1.000 euro irabaziko ditu.

Animatu eta parte hartu, boletoak aurkezteko epea larunbatean, ekainaren 29an, 21:00etan amaitzen da.

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko**: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

## San Pedro Jaietako informazioa *txintxarri.info*-n

Jarraitu San Pedro jaiak *txintxarri.info* orrialdean sortu dugun atal berezian eta sare sozialetan.

Iaz bezala hiru txupinak streaming bidez zuzenean eskainiko ditugu. Eta honetaz gain, argazkiak, bideoak, jaietako berriak... denetarik izango dugu gure orrialdean, baita zure argazkiak zintzilikatzeko aukera ere.



### Txintxarri-n zure argazkiak

*Txintxarri.info*-n argazkiak atalean sartuta "igo argazkiak!" aukera aurkituko duzue. Hori bai, lehenengo aldiz sartzerakoan erabiltzailea erregistratu beharko da, pasahitza eskuratzeko. Hauekin sartu eta argazkiak igo eta kudeatzeko lagungarri izango zaizkizuen argibideak aurkituko dituzue jarraian.

Baina ez da hau jaietan atera dituzun argazkiak Txintxarri-n argitaratzeko modu bakarra. Zure argazkiak txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliz gero ere argitaratuko ditugu.

Gainera, astelehena baino lehen jasotzen ditugun argazkiak uztailaren 3an, San Pedro jaietako argazkiekin osatutako Txintxarri berezian argitaratuko ditugu. Animatu eta parte hartu!














JOSE AIZPURUA UNANUE S.L.
eraikuntzak
#SPJ2013
OSO ONDO PASA HERRIKO JAIETAN!
620 800 186
JOSE AIZPURUA UNANUE, S.L.
ERAIKUNTZAK - CONSTRUCCIONES
PROIEKTUAK
PROYECTOS
FATXADA ISOLATZAILEAK
FACHADAS AISLANTES
• Igeltseritza orokorrean
• Fatxaden estaldurak
• Estalkien berriztatzeak
• Gremioen koordinazioa
• Barne erreformak
Nagusia 14 behea atzekoaldea • Lasarte-Oria • Tel.: 943 373879 • Mobila: 620 800186


ALCAR
VENTANAS
Jai ahaztezinak igaro!
#SPJ2013
-22% diru-laguntza
Zuregandik hurbil
www.facebook.com/VentanasAlcar
ERAKUSKETA
Plaza Oriamendi, 2
(Lehengo Doble J)
20160 - Lasarte-Oria - Gipuzkoa
TAILERRA
Ibaiondo,4
erdisotoa 5-A
Tel: 943 37 78 68
tienda@ventanasalcar.com
www.ventanasalcar.com


aldaz
hortz klinika · clínica dental
San Pedro jai alaitsuak
opa dizkizuegu!
Aldaz Hortz Klinikak tratamendu aurreratuenetan
aplikatutako punta puntako teknologia eskaintzen dizu
inplanteak eta hortz fijoak egun batean
ia batere erasotzailea ez den ordenagailuz
bideratutako kirurgia, punturik erabili gabe
"invisalign" ortodontzi ikusezina
pazientearen irribarrea sesio batean aldatzen
duten karilla estetikoak
interesik gabeko finantziazioa 12 hilabete arte
RPS125/10
Deitu gure zerbitzua ezagutzeko
943 366 377
AENOR
ER
Empresa
Registrada
ER-0605/2005
Ola kalea,10
Lasarte-Oria 20160
San Bartolome, 22
Elgoibar 20870
www.dentalaldaz.com